

2018-2021 ALDIKO BITARTEKO EBALUAZIO- TXOSTENA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN IV. GIDA PLANA

2022KO APIRILA



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

0. Siglak eta akronimoak	2
1. Sarrera	3
2. Ebaluazioaren garapena	4
3. Ebaluazioaren emaitzak	7
3.1 Baliabideak	7
3.1.1 Aurrekontu-esparrua	
3.1.2 Neurri positiboak	
3.1.3 Tresnen arteko banaketa	
3.1.4 2018-2021 aldian emandako funtsen analisisa	
3.2 Prozesua	15
3.2.1 Garapenerako politiken koherentzia	
3.2.2 Eremu estrategikoak	
3.2.3 Tokikoa-globala	
3.2.4 Giza eskubideak	
3.2.5 Generoa	
3.2.6 Afrika	
3.2.7 Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk	
3.2.8 Ezagutza eta ikaskuntza sortzea	
3.2.9 Gizarte-eraldaketarako hezkuntza	
3.2.10 Lehenetsun transbertsal eta geografikoak	
3.2.11 Komunikazioa	
3.2.12 Jarraipena eta ebaluazioa	
3.2.13 Arau-berrikuspina	
3.2.14 Kudeaketa	
3.3 Norainokoa	21
3.3.1 1. helburua: datu kuantitatiboak	
3.3.2 1. helburua: datu kualitatiboak	
3.3.3 2. eta 3. helburuak: IV. Gida Planaren ikuspegiak	
4 2018-2021 aldiko mugarri nagusiak	46
5 Ikaskuntzak eta erronkak 2022-2024 luzapenari begira	47
5.1 Diseinua eta ebaluagarritasuna	
5.2 Kudeaketa: palankak eta oztopoak	
5.3 Etorkizunerako begiradak	
6 Eranskinak	54
1. eranskina. 2018-2021 aldian emandako funtsak	
2. eranskina Prozesu-matrizea	

0. SIGLAK ETA AKRONIMOAK

eLankidetzak	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
BEK	Garapenerako lankidetzaren alorrean profesionalak espezializatzeko beka
EHE	Ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak
GBA	Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuetarako laguntzak
(H)ABIAN 2030	Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren euskal estrategia
IZE	Dirulaguntza izendunak
EGL	<i>Euskadiko Gazteak Lankidetzan</i> programa
NBE	Gazte lankideak herrialde pobretuetako Nazio Batuen bulegoetan prestatzeko beka
GGKE	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea
PRE	Ekintza humanitariorako proiektuak finantzatzeko lerroa
PRO K1	Garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzak
PRO K2	Produktzio-garapenerako eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak
PRO K3	Garapenerako hezkuntzaren proiektuetarako laguntzak
SEAD	Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa
SAR	Garapenerako lankidetzaren <i>Ignacio Ellacuría</i> saria
ZUZ	Zuzeneko diru-laguntzak

1.- SARRERA

Ebaluazioaren orientazioa

1. Barne-ebaluazioko prozesua
2. Parte hartuz
3. Bitarteko ebaluazioa
4. Ikaskuntzen bilaketan
5. Gardentasun-ariketa moduan
6. Etorkizunari begira

eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren (hemendik aurrera, IV. Gida Plana) ebaluazio-txosten hau barne-ebaluazioko prozesu baten emaitza da, eta garapenerako lankidetzaren hainbat eragilek beren ekarpen eta kontrasteak egin dituzte prozesu horretan.

Ebaluazio honek ez du IV. Gida Planaren azken ebaluazioa suposatzen, haren 2018-2021 aldiko bitarteko ebaluazio bat baizik. IV. Gida Plana luzatuko delako hartu da erabaki hori.

Gure logika eta eginbideak egungo erronka globaletara eta tokikoetara egokitu beharra planteatzen du IV. Gida Planak. Horregatik, ikuspegi, jardun estrategikoko ardatz eta ekimen enblematiko jakin batzuk lehenesten ditugu, lan egiteko modu berriak bultzatzeko helburuarekin. Aldaketa sakonen testuinguru global honetan, guretzat egokia da garapenerako lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legea berrikusteko prozesua hastea. Hala, 2021ean, lankidetzaren eta elkartasunerako euskal lege berri bat egiteko prozesua hasi genuen, euskal lankidetzaren ahalmen eraldatzailea indartzeko esparrua eskaintzeko eta egungo erronkei erantzuteko bide berriak ikertzeko asmoarekin. Lege-aurreproiektuaren zirriborroak agindu zehatzak ezartzen ditu planifikazioen prozesuaren eta diseinuaren gainean, baita euskal lankidetzaren antolamendu eta kudeaketaren gainean ere, azken horiek planifikazioan ondorioak izango dituztelarik. Horregatik, 2021eko azaroaren 16an, eLankidetzaren Kontseilu Errektoreak egokitzat jo zuen IV. Gida Plana luzatzea, gehienez sei hilabetez Lege berria onartu ondoren.

Testuinguru horretan, ebaluazio-prozesua gardentasun-ariketa baten modura ulertu dugu, 2018-2021 aldian egindakoaren berri emateko. Gainera, bitarteko ebaluazio hori ikaskuntza-prozesu baten modura planteatu dugu etorkizunari begira, batetik, luzapenean IV. Gida Planaren zer elementuren gainean sakondu behar den zehazteko, eta, bestetik, ¹eLankidetzaren ahalmen analitikoaren eraikitzen joateko, IV. Gida Planaren azken ebaluazioa egin eta V. Gida Plana diseinatzearen.

¹ IV. Gida Planaren luzapena zehazteko prozesua, 2018-2021 aldia ebaluatzekeko prozesuarekin batera garatu da.

2. EBALUAZIOAREN GARAPENA

Ebaluazioaren dimentsioak:

- IV. Gida Planaren diseinua eta ebaluagarritasuna
- IV. Gida Planaren kudeaketa eta norainokoa
- Etorkizunari begira: IV. Gida Planaren luzapenerantz

Zer metodologia erabili dugu?

- Dokumentuen berrikuspena
- Barneko lan-saioak
- Galde-sortak
- Tailerrak

Norekin?

- Euskadiko gizarte-eragileekin
- Eusko Jaurlaritzako sailak, erakundeak eta erakunde autonomoak
- Euskadiko lankidetzaren erakunde publikoak
- Estatuko lankidetzaren deszentralizatuko pareko erakundeak
- eLankidetzaren

Ebaluazioaren diseinuak aurreko atalean azaldutako premia eta jarraibideei erantzun die. Hau da, 2018-2021 aldirian egindakoaren berri emateko premiari, baita ikaskuntzak ondorioztatzeko premiari ere, IV. Gida Planaren luzapenera eta ondorengo azken ebaluazioari begira.

Hala, ebaluazio-prozesuan heldutako dimentsioak hiru bloketan multzokatu ditugu: (i) diseinua eta ebaluagarritasuna, IV. Gida Planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrizeari erantzun bat ematea posible ote den probatzeko eta hura planifikazioaren helburuen neurketara hurbiltzen dela balidatzeko; (ii) IV. Gida Planaren kudeaketa eta norainokoa, 2018-2021 aldirian egindakoa zehazteko eta aurrerapenak ahalbidetu edo mugatu dituzten palanka eta oztopoak identifikatzeko; eta (iii) etorkizunerako begiradak, IV. Gida Planaren luzapenera zer elementuren gainean sakondu behar den zehazteko.

Ebaluazio-prozesua 2021eko azken hiruhilekoan hasi genuen, urteko memoriak berrikusiz eta 2018-2021 aldiriko planifikazioari eta ebaluazioari lotutako hainbat dokumentu berrikusiz. Jarraian, lan-saioak egin genituen eLankidetzaren barnean, IV. Gida Planaren jardun estrategikoko ardatzen eta funtsezko beste elementu batzuen arduradunekin. Hala, hasteko, 2018-2021 aldirian egindakoaren mapaketa nahiko zehatz bat zehaztu genuen. Aldi berean, barne-saioen prozesu horretan, IV. Gida Planaren luzapenerako elementu posibleak taxutzen eta ebaluagarritasunarekin lotutako gaiak aztertzen joan ginen.

Aurrekoaz gain, eta lankidetzaren eragileen ekarpenak eta balioespenak edukitzeko², galde-sorta kuantitatibo eta kualitatiboak egin zitzaizkien: (i) Euskadiko gizarte-eragileei, (ii) Eusko Jaurlaritzako sail, erakunde eta erakunde autonomoei, (iii) Euskadiko lankidetzaren

² Ebaluazioaren planteamendua eta denbora-tarteak direla-eta, ez ditugu Hegoko tokiko erakunde bazkideen ahotsak eduki. Nolanahi ere, azken ebaluazioari begira, haien ikuspegi eta ekarpenak txertatzeko behar diren mekanismoak ezartzeko aukera izango da.

erakunde publikoei, (iv) Estatuko lankidetzaren deszentralizatuko pareko erakundeei, eta (v) eLankidetzari. Gainera, 2022ko martxoan, bi tailer egin genituen, eLankidetzako taldearekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarekin, besteak beste, ebaluazio-prozesuaren eta luzapenerako erronken ikaskuntzen identifikazioan aurrera egiteko.

01 taula. Kontsultatutako eragile mota bakoitzak erabilitako metodologiaren laburpena.

Eragileak	Galde-sortak	Lan-saioak eta tailerrak
<i>Euskadiko gizarte-eragileak</i>	Honako hauei buruzko galde-sorta kuantitatiboa eta kualitatiboa: (i) IV. Gida Planaren definizioa eta diseinua; (ii) IV. Gida Planaren kudeaketa eta norainokoa; eta (iii) etorkizunari begiradak (erronka orokorrak).	
<i>Eusko Jaurlaritzako sailak, erakundeak eta erakunde autonomoak</i>	Honako hauei buruzko galde-sorta kuantitatiboa eta kualitatiboa: (i) IV. Gida Planaren definizioa eta diseinua; (ii) IV. Gida Planaren kudeaketa eta norainokoa; eta (iii) etorkizunari begiradak (erronka orokorrak eta garapenerako politiken koherentzia).	
<i>Euskadiko lankidetzaren erakunde publikoak</i>	Honako hauei buruzko galde-sorta kuantitatiboa eta kualitatiboa: (i) IV. Gida Planaren definizioa eta diseinua; (ii) IV. Gida Planaren kudeaketa eta norainokoa; eta (iii) etorkizunari begiradak (erronka orokorrak eta erakundearteko lankidetzaren).	
<i>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua</i>	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko kide gehienak aurreko taldeetako bateko kide dira.	Tailerra 2022/03/18an garatu zen eLankidetzaren instalazioetan, eta 15 pertsonak hartu zuten parte, gehi eLankidetzako 4 gehiagok. Prozesu-matrizearen aurrerapenak sozializatu eta balidatu dira. Eragileek galde-sortetan identifikatutako lorpen eta erronka nagusiak sozializatu dira. Eta luzapenerako erronkak batera lehenetsi dira ³ .
<i>Estatuko lankidetzaren deszentralizatuko pareko erakundeak</i>	Honako hauei buruzko galde-sorta kuantitatiboa eta kualitatiboa: (i) IV. Gida Planaren ezagutza eta artikulazioa; (ii) euskal lankidetzaren publikoaren aitortza lankidetzaren deszentralizatuaren eremuan; eta (iii) etorkizunari begiradak (erronka orokorrak eta erakundearteko lankidetzaren Autonomia Erkidegoen artean).	
<i>eLankidetzaren</i>	Honako hauei buruzko galde-sorta kuantitatiboa eta kualitatiboa: (i) IV. Gida Planaren definizioa eta diseinua; (ii) IV. Gida Planaren kudeaketa eta norainokoa; eta (iii) etorkizunari begiradak (erronka orokorrak). Barne-mailan bi galde-sorta abiarazi dira: (i) zabala, IV. Gida Planaren diseinuan parte-hartze aktiboa izan zuten langileentzat; eta (ii) laburra, gainerako taldekideentzat.	eLankidetzaren barneko lan-saioak, 2021eko abendutik 2022ko otsailera bitarte, IV. Gida Planaren funtsezko elementuen eta jardun estrategikoko ardatzen ardura duten pertsonekin, matrizean aurrerapenak identifikatzeko, planaren ebaluagarritasuna aztertzeko eta luzapenerako erronkak identifikatzeko. Horrez gain, 2022/03/3an tailer bat egin zen, eta 31 pertsonak parte hartu zuten. Gune horretan, prozesu-matrizean egindako aurrerapenak sozializatzen eta balidatzen dira, eta IV. Gida Planaren inplementazioa erraztu edo mugatu duten palanka eta oztopo nagusiak identifikatzen. Azkenik, luzapenerako

		lehenetasunak eta ekintza-lerroak aurkezten dira, eta ondoren, eLankidetzako Zuzendaritza Batzordeak balidatzen ditu ³ .
--	--	---

Eragile guztiekin erabilitako galde-sortei dagokienez, garrantzitsua da informazioa balidatzeko jarraitu dugun prozesua ezagutzea. 87 galde-sorta hasi baziren ere, guztiz edo ia guztiz (% 80tik gora beteta) bete direnen informazioa hartu dugu kontuan⁴.

Ildo beretik, garrantzitsua da adieraztea *ez daki / ez du erantzun* /ED/EE) erantzunak minoritarioak izan direla, eta horregatik uste dugu ez dutela aldaketarik suposatzen galde-sortei emandako erantzunen zentzuan eta balioan. Horregatik, *ez daki / ez du erantzun* (ED/EE) erantzunak ez dira islatzen dokumentu honetan ageri diren galde-sorten grafikoetan⁵.

02. taula. Galde-sorten bitartez kontsultatutako eragileen parte-hartzearen laburpena.

	Izan litezkeenak ⁶	Hasitakoak	Baliiodunak
eLankidetzak (galde-sorta laburra)	25	12	12
eLankidetzak (galde-sorta zabala)	10	9	9
BARNEKOAK, GUZTIRA	35	21	21
Estatuko lankidetzak deszentralizatuko pareko erakundeak	33	8	5
Euskadiko gizarte-eragileak	--	36	32
Euskadiko lankidetzak-erakunde publikoak	16	7	5
Eusko Jaurlaritzako sailak, erakundeak eta erakunde autonomoak	34	15	12
KANPOKOAK GUZTIRA	--	66	54
GUZTIRA	--	87	75

Erantzunen mailari dagokionez aipatzekoa da zenbait kasutan txikia izan dela, lankidetzaren pareko erakundeetan bereziki. Aurrekoak adierazgarritasun estatistikoaren

³ Luzapena onartzeko prozesuaren barnean hartzen dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak nahitaezko txostena ematea, eta eLankidetzako Kontseilu Errektoreak onartzea eta Gobernu Kontseiluari helaraztea.

⁴ Ikusi dugunez, amaitu gabeko galde-sortetako batzuei beste ahalegin batean erantzun zaie, pertsona beren eskutik. Hortaz, ondorioztatzen dugu amaitu gabeko galde-sorta horiek galde-sortarekiko lehen hartu-emanaren ondorio direla, eta, galde-sorten edukiaren eta luzeraren berri izan ondoren, orokorrean bete-betean erantzun zaiela.

⁵ *Ez daki / Ez du erantzun* (ED/EE) erantzunak ez dira grafikoetan aintzat hartu, eta horregatik, erantzun kopuru osoa alda daiteke eragile beraren galdera desberdinetan, ED/EE kopurua desberdina izan daitekeelako galdera bakoitzean.

⁶ *Gizarte-eragileen kasuan, ezinezkoa da galde-sorta zenbat eragileri bidali zitzaizen zehaztea, galde-sorta hori partekatu zelako eLankidetzako gizarte-eragileen kontaktuen oinarri sistematizatu gabearekin. Estatuaren lankidetzak deszentralizatuko pareko erakundeen, Euskadiko lankidetzak-erakunde publikoen eta Eusko Jaurlaritzako sail, erakunde eta erakunde autonomoen kasuan, galde-sorta bidali zitzaizen pertsonen kopurua adierazten da, ez erakunde kopurua.*

araberako irakurketa bat muga dezakeen arren, galde-sortei erantzuteko denbora hartu duten pertsonen iritzi eta ezagutzen aniztasunaren balioa ez du gutxitzen, gure ustez.

Azkenik, jakinarazi nahi dugu galde-sorten emaitza kuantitatibo eta kualitatiboak⁷ dokumentu honen barruan islatzen direla, honako atal hauetan: 3. *Ebaluazioaren emaitzak*, 4. *2018-2021 aldiko mugarri nagusiak*, eta 5. *2022-2024 luzapenerako ikaskuntza eta erronkak*

⁷ eLankidetzaren galde-sorta laburraren kasuan, etorkizunari begirako blokeko erantzunak baino ez dira kontuan hartu ebaluazio-dokumentu honetarako. eLankidetzaren galde-sorta zabalaren kasuan, aldiz, hiru blokeetako erantzunak hartu dira kontuan: definizioa eta diseinua, kudeaketa eta norainokoa, eta etorkizunari begiradak.

3. EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Bitarteko ebaluazioaren prozesutik lortutako emaitza nagusiak bildu ditugu atal honetan. IV. Gida Planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrizeko hiru atalei jarraikiz antolatu dira emaitzak: baliabideak, prozesua eta norainokoa.

Atal horietako bakoitzerako, zenbait aginte-koadro ezarri ziren, adierazle eta helmuga multzo zabal batekin. Aurreikuspenen arabera, behin plana onarturik, urtebeteko epean adierazle eta helmuga horiek berrikusi eta zehaztuko ziren, eta oinarri-lerro bat ezarriko zen. Alabaina, ez gara ariketa hori egitera iritsi.

Hala, ebaluazio-prozesua baliagarria izan da IV. Gida Planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrizeko adierazle eta galderei erantzutea posible den edo ez probatzeko. Ahalegin handi bat egin bada ere, adierazle eta galdera multzo hain zabal batetik abiatzea —eta batzuetan, aurreikusitako adierazle eta galderak zer eta zertarako ziren argi eduki gabe— oztopo bat izan da ebaluazio-prozesuan.

Jarraian aurkezten diren ebaluazio-emaitzetan ez zaie erantzuten jarraipen- eta ebaluazio-matrizearen analisisiko kategoria, galdera eta adierazle guztiei. Ezbairik gabe, luzapenean IV. Gida Planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrize egingarri, errealista eta baliagarri bat zehaztu beharko da azken ebaluazioari begira, beste zeregin batzuen artean. Hau da, aurrera egin beharko da IV. Gida Planaren eta V. Gida Planaren oinarri-lerroaren ebaluagarritasuna eraikitzeko bidean.

3.1 BALIABIDEAK

IV. Gida Planaren barnean egonik, konpromiso ekonomikoekin zerikusia duten adierazleak jasotzen dira lehen bloke honetan: (i) aurrekontu-esparrua; (ii) ekintza positiboak; eta (iii) funtsen banaketa tresnaren arabera. Aurrekoaren osagarri, 2018-2021 aldian emandako funtsen analisi labur bat jaso dugu laugarren puntu batean.

1. *Eranskinera (2018-2021 aldian emandako funtsak)* jo dezakegu 2018-2021 aldian finantzatutako ekimenen gaineko informazioa jasotzeko.

3.1.1 AURREKONTU-ESPARRUA

IV. Gida Planean bildutako urteko aurrekontu-aurreikuspena bete eta gainditu ere egin da planaren lehen hiru urteetan. Alabaina, 2021ean ez zen bete aurreikusitako 53 milioi euroko aurrekontua⁸.

03 taula. eLankidetzaren aurrekontu-aurreikuspena eta urteko aurrekontua 2018-2021 aldian.

	Aurreikuspena IV. Gida Plana	Aurrekontua eLankidetzaz	Aldea
2018	46.044.551,00 €	46.533.177,00 €	488.626,00 €
2019	46.200.000,00 €	46.968.732,00 €	768.732,00 €
2020	49.000.000,00 €	50.005.542,00 €	1.005.542,00 €
2021	53.000.000,00 €	49.387.291,00 €	-3.612.709,00 €

⁸ COVID-19ak eragindako ohiz kanpoko testuinguru batean, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak 2021eko aurrekontua ezartzeko emandako jarraibideak hartu genituen aintzat, eta gero Eusko Legebiltzarrak aurrekontu hori berretsi zuen.

3.1.2 NEURRI POSITIBOAK

IV. Gida Plan honetan, urtero, zenbait konpromiso hartzen ditugu funtsen jomuga espezifikuari dagokionez. Konpromiso horietatik gehienek zerikusia dute, ekintza positiboen moduan, planaren jardun estrategikoko ardatzetan lehenetsitako ekintzekin.

04 taula. IV. Gida Planaren barnean hartutako neurri positiboak.

Lehenetsitako ekintzak	Urtero emandako funtsen gutxieneko konpromisoa
Giza eskubideen pertsona defendatzaileen babesu eta akonpainamendua	% 4
Emakumeen ahalduntzea	% 20
Hegoko erakunde feministak	% 10
Afrika	% 25
Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk	% 9
Ekintzak Euskadin	% 13

2018-2021 aldian, urtero bete ditugu lehenetsitako ekintzei dagokienez hartutako konpromiso guztiak, Afrikan izan ezik. Kasu horretan, 2021ean soilik lortu zen aurreikusitako % 25a.

Hurrengo tauletan, neurri positibo bakoitzeko datuak aurkeztu dira (emandako funtsak, onartutako ekimen kopurua eta funtsen ehuneko emandako funts guztien aldean) urteko logikari jarraikiz, baita 2018-2021 aldiko kontsolidatua ere. *01 grafikoan*, konparazio bat aurkeztu da, ekintza positibo bakoitzeko aurreikusitako ehunekoaren eta horietako bakoitzak 2018-2021 aldian lortutako ehunekoaren batezbestekoaren artean⁹.

05 taula. Urteko eta 2018-2021 aldiko datuak, giza eskubideen pertsona defendatzaileak babestu eta akonpainatzeko ekimenei buruzkoak.

BABESA	Emandako funtsak	EKIMEN kopurua	% emandako funts guztien aldean
2018	2.005.574,62 €	6	% 4,33
2019	1.562.318,41 €	6	% 4,11
2020	1.732.887,94 €	10	% 4,56
2021	3.152.677,40 €	12	% 6,49
GUZTIRA	8.453.458,37 €	34	% 4,95

06 taula. Emakumeak ahalduntzeko ekimenei buruzko urteko eta 2018-2021 aldiko datuak.

⁹ 11. taulan, urtez urte eta 2018-2021 aldian emandako funtsei buruzko datuak bildu dira.

AHALDUNTZEA	Emandako funtsak	EKIMEN kopurua	% emandako funts guztien aldean
2018	13.288.381,70 €	36	% 28,71
2019	12.045.776,55 €	26	% 31,70
2020	13.049.409,90 €	31	% 34,37
2021	9.955.580,15 €	23	% 20,48 ¹⁰
GUZTIRA	48.339.148,30 €	116	% 28,29

07 taula. Hegoko erakunde feministekiko ekimenei buruzko urteko eta 2018-2021 aldiko datuak.

HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK	Emandako funtsak	EKIMEN kopurua	% emandako funts guztien aldean
2018	6.049.608,74 €	18	% 13,07
2019	6.841.316,01 €	15	% 18,00
2020	9.543.284,64 €	26	% 25,14
2021	8.814.606,37 €	25	% 18,14
GUZTIRA	31.248.815,76 €	84	% 18,29

08 taula. Afrikan garatutako ekimenei buruzko urteko eta 2018-2021 aldiko datuak.

AFRIKA	Emandako funtsak	EKIMEN kopurua	% emandako funts guztien aldean
2018	10.219.902,55 €	37	% 22,08
2019	7.217.947,33 €	20	% 19,00
2020	8.775.846,28 €	27	% 23,12
2021	12.637.456,37 €	41	% 26,00
GUZTIRA	38.851.152,53 €	125	% 22,74

09 taula. Gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan (ekintza humanitarioa) garatutako ekimenei buruzko urteko eta 2018-2021 aldiko datuak.


GATAZKAK	Emandako funtsak	EKIMEN kopurua	% emandako funts guztien aldean
2018	5.452.395,92 €	16	% 11,78
2019	4.059.506,55 €	11	% 10,68
2020	4.350.000,00 €	23	% 11,46
2021	10.835.955,39 €	39	% 22,30
GUZTIRA	24.697.857,86 €	89	% 14,46

10. taula. Euskadin garatutako ekimenei buruzko urteko eta 2018-2021 aldiko datuak.

EUSKADI	Emandako funtsak	EKIMEN kopurua	% emandako funts guztien aldean
2018	6.101.686,26 €	41	% 13,18
2019	6.094.351,97 €	35	% 16,04
2020	5.015.104,24 €	25	% 13,21
2021	6.611.637,02 €	39	% 13,60
GUZTIRA	23.822.779,49 €	140	% 13,94

¹⁰ eLankidetzan aztertzen ari gara 2021ean emakumeak ahalduntzeko funtsen ehunekoan izandako beherakada. Nolanahi ere, alde zuzeneko ondorioek aditzera ematen dute beherakada hori gertatu dela, nagusiki, 2021ean; (i) proiektuen deialdiari —non ahalduntze-ekimeneen kontzentrazioa handiagoa izan den betidanik— ehuneko txikiago bat eskaini geniolako, banatutako funts guztien aldean; eta (ii) sektore horri ekimen gutxiago esleitu zitzaizkiolako.


01 grafikoa. Lehenetsitako ekintzaren arabera funts-ehunekoaren konpromisoa eta 2018-21 aldian lehenetsitako ekintza bakoitzeko batez beste lortutako ehunekoak.



3.1.3 TRESNEN ARTEKO BANAKETA

2018-2021 aldian, 170 milioi euro baino gehiago eman genituen hainbat lankidetzatresnaren bitartez. Funts horiek tresnaren arabera nola banatu diren erakusten dugu jarraian: batetik, *02. grafikoa*n, aldiko kontsolidatua erakusten da, tresnaren arabera; eta, bestetik, *11. taula*n, urtero deitutako tresnei buruzko datuak aurkezten dira. Taula horretan islatzen da, besteak beste, 2020an ez genuela tresnen zati baten deialdia gauzatu, COVID-19ak eragindako krisiaren testuinguruaren ondorioz.

02. grafikoa. Funtsen banaketa tresnaren eta ehunekoaren arabera, 2018-2021 aldian guztira emandako funtsen aldean.



11. taula. Funtsen urteko banaketa tresnen arabera 2018-2021 aldian.


Tresna	2018	2019	2020	2021	2018-2021 GUZTIRA	% 2018- 2021
PRO K1	29.243.878,73 €	24.856.032,37 €	26.600.000,00 €	26.046.709,16 €	106.746.620,26 €	% 62,48
PRO K2	956.121,27 €	1.167.693,95 €	1.133.707,67 €	1.200.000,00 €	4.457.522,89 €	% 10,71
PRO K3	5.300.000,00 €	3.976.273,68 €	4.266.292,33 €	4.753.290,84 €	18.295.856,85 €	% 2,61
EHE	2.900.000,00 €	2.900.000,00 €	--	4.371.910,78 €	10.171.910,78 €	% 5,95
PRE	2.400.000,00 €	999.506,55 €	4.200.000,00 €	6.064.044,61 €	13.663.551,16 €	% 8,00
GBA	266.344,26 €	148.319,29 €	--	218.480,18 €	633.143,73 €	% 0,37
ZUZ	4.506.405,59 €	3.522.340,87 €	1.763.825,12 €	4.359.386,00 €	14.151.957,58 €	% 8,28
IZE ¹¹	--	--	--	1.570.460,80 €	1.570.460,80 €	% 0,92
BEK	60.000,00 €	80.000,00 €	--	--	140.000,00 €	% 0,08
NBE	481.920,00 €	181.370,00 €	--	--	663.290,00 €	% 0,39
EGL ¹²	150.000,00 €	150.000,00 €	--	--	300.000,00 €	% 0,18
SAR	15.500,00 €	15.500,00 €	--	15.500,00 €	46.500,00 €	% 0,03
GUZTIRA	46.280.169,85 €	37.997.036,71 €	37.963.825,12 €	48.599.782,37 €	170.840.814,05 €	% 100

3.1.4 2018-2021 ALDIAN EMANDKO FUNTSEN ANALISIA

Jarraian, 2018-2021 aldian emandako funtsen banaketa erakutsiko dugu lau ikuspegitatik begiratuta: 2030 Agendari egindako ekarpenaren arabera, herrialdeen arabera, eremu geografikoen arabera eta eragileen (erakunde eskatzaileak) arabera.

2030 Agendari egindako ekarpena

03. grafikoa: 2018-2021 aldian Garapen Jasangarrirako Helburuaren arabera (GJH) emandako funtsak.



¹¹ 2021etik aurrera, dirulaguntza izendunak (IZE) ez ditugu zuzeneko dirulaguntzen (ZUZ) barruan sartzen.

¹² 2020tik aurrera, Gazteria Zuzendaritzak bere gain hartzen du *Euskal Gazteak Lanikidetzan* programaren aurrekontu osoa.

Funtsen banaketa herrialdeen arabera

12. taula. 2018-2021 aldian herrialdeen arabera emandako funtsak.

	Emandako funtsak 2018-2021	%-A emandako guztizkoaren gainean
Euskadi	23.822.779,49 €	% 13,94
Guatemala	14.651.897,88 €	% 8,58
Kolonbia	12.929.759,50 €	% 7,57
Peru	11.312.634,05 €	% 6,62
El Salvador	10.701.198,47 €	% 6,26
Bolivia	7.808.299,75 €	% 4,57
Senegal	7.075.114,02 €	% 4,14
Palestina	6.613.739,16 €	% 3,87
Mexiko	6.354.516,03 €	% 3,72
Ekuador	6.314.915,19 €	% 3,70
Honduras	5.874.267,14 €	% 3,44
Kuba	5.571.379,44 €	% 3,26
India	5.354.284,80 €	% 3,13
Kongoko Errepublika Demokratikoa	4.695.279,48 €	% 2,75
Brasil	3.497.332,18 €	% 2,05
Nikaragua	3.389.972,90 €	% 1,98
Mali	3.014.630,39 €	% 1,76
Libano	2.996.529,63 €	% 1,75
Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa	2.539.313,70 €	% 1,49
Ruanda	2.501.045,59 €	% 1,46
Etiopia	2.145.260,18 €	% 1,26
Burundi	1.983.598,13 €	% 1,16
Boli Kosta	1.683.032,31 €	% 0,99
Uganda	1.532.995,75 €	% 0,90
Txad	1.514.308,46 €	% 0,89
Multiherrialdea, zehaztu gabe	1.300.000,00 €	% 0,76
Afrika Erdiko Errepublika	1.012.097,33 €	% 0,59
Mozambique	899.068,69 €	% 0,53
Costa Rica	867.641,55 €	% 0,51
Malawi	861.041,76 €	% 0,50
Kamerun	832.727,34 €	% 0,49
Nigeria	830.805,80 €	% 0,49
Ginea-Bissau	810.728,44 €	% 0,47
Siria	799.980,00 €	% 0,47
Venezuela	679.262,43 €	% 0,40
Niger	654.727,20 €	% 0,38
Zimbabwe	616.402,45 €	% 0,36
Tanzania	605.904,37 €	% 0,35
Somalia	589.794,28 €	% 0,35
Kenya	472.938,04 €	% 0,28
Hego Sudan	400.000,00 €	% 0,23
Pakistan	366.039,48 €	% 0,21
Sudan	347.900,00 €	% 0,20
Mauritania	246.767,00 €	% 0,14
Afrika, zehaztu gabe	244.522,13 €	% 0,14
Burkina Faso	208.904,37 €	% 0,12
Irak	200.000,00 €	% 0,12
Filipinak	200.000,00 €	% 0,12
Paraguai	189.251,45 €	% 0,11
Benin	173.000,00 €	% 0,10
Madagaskar	161.183,48 €	% 0,09
Sri Lanka	62.500,00 €	% 0,04
Dominikar Errepublika	56.419,00 €	% 0,03
Uruguai	37.802,00 €	% 0,02
Ghana	35.904,37 €	% 0,02


Gambia	35.904,37 €	% 0,02
Kongo	35.904,37 €	% 0,02
Hegoafrika	35.904,37 €	% 0,02
Togo	35.904,37 €	% 0,02
Txile	18.720,00 €	% 0,01
Egipto	18.540,00 €	% 0,01
Nepal	18.540,00 €	% 0,01
GUZTIRA	170.840.814,05 €	% 100,00

Funtsen banaketa eremu geografikoen arabera


13. taula. Eremu geografikoen arabera emandako funtsak, urtez urte eta 2018-2021 aldian.

	2018		2019		2020		2021	
	Emandako funtsak (€)	Gutzizkoaren gaineko %-a	Emandako funtsak (€)	Gutzizkoaren gaineko %-a	Emandako funtsak (€)	Gutzizkoaren gaineko %-a	Emandako funtsak (€)	Gutzizkoaren gaineko %-a
Afrika	10.219.902,55	22,08	7.217.947,33	19,00	8.775.846,28	23,12	12.637.456,37	26,00
Asia	4.206.387,19	9,09	3.864.262,98	10,17	1.705.705,33	4,49	6.835.257,57	14,06
Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	11.509.938,11	24,87	11.478.682,56	30,21	11.130.281,86	29,32	13.348.389,88	27,47
Euskadi	6.101.686,26	13,18	6.094.351,97	16,04	5.015.104,24	13,21	6.611.637,02	13,60
Nazioartekoa	150.000,00	0,32	250.000,00	0,66	200.000,00	0,53	700.000,00	1,44
Hego Amerika	14.092.255,74	30,45	9.091.791,87	23,93	11.136.887,41	29,34	8.467.041,53	17,42
GUZTIRA	46.280.169,85	100,00	37.997.036,71	100,00	37.963.825,12	100,00	48.599.782,37	100,00

04 grafikoa. Eremu geografikoaren arabera urtez urte emandako funtsen ehunekoa.




05. grafikoa. 2018-2021 aldian eremu geografikoaren arabera emandako funtsen ehunekoa.



Funtsen banaketa eragileen arabera¹³

06. grafikoa. 2018-2021 aldian eragile motaren arabera (erakunde eskatzaileak) emandako funtsen ehunekoa.



¹³ Eragileak diogunean, dirulaguntzak jaso dituzten erakunde eskatzaileez ari gara. Erakunde eskatzaileen partzuergo bat badago, partzuergoko burua baino ez da aintzat hartu. Hegoko eta nazioarteko eragileak daude, zuzeneko dirulaguntza eta dirulaguntza izendun batzuetako erakunde eskatzaileek jatorri hori dutelako.

3.2 PROZESUA

Bigarren bloke hau IV. Gida Planaren betearazpen-prozesuarekin dago lotuta. Hala, planaren prozesu-matrizearen eskemari jarraikiz, IV. Gida Planaren funtsezko sei elementuei eta jardun estrategikoko zortzi ardatzei dagokienez egindakoaren laburpena aurkezten dugu jarraian:

2. *Eranskinean* informazio gehiago aurki dezakegu 2018-2021 aldian prozesu-matrizean egindako aurrerapenen gainean. *Prozesu-matrizea*.

3.2.1 GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA

2018-2021 aldian aurrerapen esanguratsua egin da garapenerako politiken koherentzian.

Koherentzia horizontalari dagokionez (Eusko Jaurlaritzan), nabarmentzekoa da garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldea sortu dela Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan, eta garapen jasangarrirako politikaren koherentziaren gaineko lehen txostena egin dela hezkuntzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzan. Gainera, aurrerapenak egin dira Eusko Jaurlaritzako sailak beren jardun-eremuekin lotutako lankidetzak-ekimenetan txertatzeko bidean.

Hala eta guztiz ere, aurrerapenak mugatuak izan dira Eusko Jaurlaritzako pertsonen prestakuntzari eta sentsibilizazioari dagokienez, baita aurreikusitako hiru ekimenen inplementazioari dagokionez ere: AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE, AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN eta AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN.

Koherentzia bertikalari dagokionez (erakundearteko artikulazioa eta koordinazioa Euskadiko lankidetzak publikoko eragileen artean), ekintza planifikatuetan egindako aurrerapena oso esanguratsua izan da. Erakundearteko ekintza garrantzitsuak garatu dira, hala nola AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN — AKUAL Erdialdeko Amerika-Euskadi ur- eta saneamendu-alorreko lankidetzarako erakundearteko programari loturik—, AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN, (H)ABIAN 2030 estrategiaren adierazle-matrizea eta oinarritzko lerroa egitea, euskal lankidetzak publikoaren Atariaren irteera, edo 1/2007 Legea berrikusteko prozesua. Gainera, Senegalaren erakundearteko beste ekimen bat zehazten hasi da.

Eta azkenik, Autonomia Erkidegoei dagokienez, lankidetzak deszentralizatuaren beste eragile batzuekiko harremana indartu da, eta haiekin batera hainbat ekimen garatu ditugu.

3.2.2 EREMU ESTRATEGIKOAK

Eremu estrategikoak martxan jarri dira lankidetzak egiteko beste modu baten modura, eta horixe da IV. Gida Planaren apustu berrietako bat. Alabaina, 2018-2021 aldian, ez da aurreikusitako sakontasun-mailarekin garatu.

2018an eta 2019an, hurrenez hurren, bi eremu estrategiko jarri genituen martxan: AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN eta AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN. Lehen eremuak Kolonbia Mahaiarekin bat egin zuen 2019an, eta, esparru horretan zenbait aurrerapen egin badira ere, gune hori ez da bilakatu planean eremu estrategikoetarako aurreikusitako logikari jarraikiz. Bestetik, bigarren eremuan baterako lan-ekintza batzuk antolatu ziren hasiera batean, baina COVID-19ak haren garapena geldiarazi zuen, eta harrezkero ez diogu berriz ere heldu. Nolanahi ere, bi ekimen bultzatzen ari dira Euskadiko eta Hegoko ekonomia sozial eta solidarioko eragileen arteko lankidetzak eta gaitasunak indartzeko.

Eremu estrategikoen ibilbide mugatua kontuan hartuz, ez dugu esperientzia hori sozializatu edo ebaluatu.

3.2.3 TOKIKOA-GLOBALA

IV. Gida Planaren apustuetako bat konpartimentuetan zatitutako lan-logikak gainditzea eta ikuspegi tokikoa-globalean sakontzea bada ere, ardatz honen ibilbidea mugatua izan da. Ikuspegia tresnetan txertatzeko asmoa bete da, oraingoz, proiektuen (PRO) 3. kapituluaren (K3), eta proiektuen hurrengo tresnan (PGM), non ikuspegia funtsezko elementu bat den. Bestetik, zenbait aurrerapen eta ekintza egin direla onartu behar bada ere, oraindik bada hobetzeko tartea, jardunbide egokien identifikazioari, trukeari eta ikaskuntzari dagokienez.

Sareei eta aliantzei dagokienez, nabarmentzekoa da hainbat sare erregional eta globalen ekimenetarako laguntza eta finantzaketa eman dugula, eta, Euskal Fondoa Euskal Lankideen Tokiko Erakundearen Elkartearekin batera, PLATFORMA garapenerako lankidetzan aktibo diren hiri eta erregioen Europako sarean parte hartzen dugula. Azkenik, 2018-2021 aldian, hainbat eragilerentzako prestakuntza-plan bat geratu da garatu gabe, ikuspegiari lotuta.

3.2.4 GIZA ESKUBIDEAK

Ardatz honetan garapen desberdinak izan dira. Bi jardun-lerro definitu ziren: giza eskubideen ikuspegi sakontzea eta pertsona defendatzaileen babesak. Lehen lerroa ez da aurreikusitako sakontasunarekin zehaztu, ikuspegiaren txertaketa proiektuen (PRO) eta ekintza humanitarioaren (EHE eta PRE) 3. kapituluko (K3) baremo eta formularioetan berrikusi delako bakarrik. Bestetik, zenbait aurrerapen eta ekintza egin direla onartu behar bada ere, oraindik bada hobetzeko tartea, jardunbide egokien identifikazioari, trukeari eta ikaskuntzari dagokienez.

Giza eskubideen pertsona, erakunde, komunitate eta sare defendatzaileekin lotutako ekintzak neurri handiago batean garatu dira. Ildo horretan, nabarmentzekoa da eLankidetzaren 2020-2023 aldirako Babesaren Ibilbide Orria definitu dela, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzarekin antolatu garena, eta, urtero, emandako funts guztien % 4 babesera bideratzeko konpromisoa hartu dela. Jardunbide egokien identifikazioari, trukeari eta ikaskuntzari dagokienez, ordea, ezer gutxi egin dugu aurrera.



3.2.5 GENEROA


Oro har, ardatz horretan aurrerapen esanguratsua egin da, sakontasun-maila desberdinekin izan bada ere, jardun-lerroen arabera.

Emakumeak ahalduentzeko zeharkako eta sektoreko ikuspegia sakontzeari dagokionez, nabarmentzekoa da genero-berdintasunaren aldeko planei bultzada bat eman zaiela, eta, urtero, emandako funts guztien % 20 emakumeak ahalduentzeko ekimenetara eta % 10 Hegoko erakunde feministetara bideratzeko konpromisoa bete dela. Alabaina,

zeharkakotasun- eta ahalduz- alorrean, jardunbide egokien identifikazioaren, trukearen eta ikaskuntzaren osagaiak garapen mugatua izan du.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia bultzatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da egindako ekimenen mapaketa, alorrean garatutako prestakuntza-ekintzak eta proiektuen (PRO) 3. kapituluaren (K3) ikuspegiaren integrazioan egindako aurrerapena.

Azkenik, eLankidetzan genero-zeharkakotasuna indartzeari dagokionez, nabarmentzekoa da 2021-2024 aldirako Genero Berdintasunaren aldeko Antolamendu Aldaketarako I. Plana zehaztu dela.



3.2.6 AFRIKA

Afrikarekiko lankidetzari emandako bultzada da IV. Gida Planean jasotako lehentasun geografikoetako bat. Afrikari lotutako jardun-lerro gehienetan aurrerapenak izan badira ere, sakontasun-maila ez da hasiera batean planteatutakoa izan.

Afrikari eta Afrikako eragileengan zentratutako ekimenen promozioari dagokionez nabarmendu nahi dugu 2021ean, aldirian lehen aldiz, emandako funts guztien % 25 Afrikara bideratzea lortu genuela. Horrek zerikusia du, besteak beste, tresnetan funts-erreserbak ezartzearekin eta baremoak Afrikako testuinguruetara egokitzearekin. Horrez gain, 2018-2021 aldirian bultzatu dugu Euskadin Afrikako errealitateak ezagutzera emateko ekimena, eta Afrikako eta Euskadiko erakundearen arteko lotura ere sustatu dugu.

Eragileak indartzeko topaketa eta ikaskuntzarako guneak sortzeari dagokionez, Senegalgo eta Kongoko Errepublikako Demokratikoko erakundeentzako prestakuntza-prozesuak nabarmentzen ditugu, baita Euskadiko sektoreko erakundeentzako prestakuntzak ere. eLankidetzaren zeregina indartzeari dagokionez, berriz, gai horretan diharduten hainbat erakunderekin harremanetan jarri gara, baina eLankidetzako taldearentzat ezer gutxi aurreratu dugu Afrikaren gaineko prestakuntza espezifikoa.

Azkenik, nabarmentzekoa da AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN, AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN, AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN eta AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN ekimenen esparruan hainbat ekimen zehaztu direla, Afrikako eta Euskadiko errealitateak lotzeko asmoarekin, asmo hori oraindik gutxi samar zehaztu bada ere.




3.2.7 GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA-EGOERA BATZUK

Gatazken eta beste indarkeria-egoeren ardatzean lortutako aurrerapena, eLankidetzaren 2018-2023 Ekintza Humanitarioko Estrategiari lotuta, esanguratsua izan da bere jardun-lerro gehienetan.

Erakunde humanitarioak indartzeari dagokionez, Euskadiko erakunde humanitarioen prestakuntza-premien gainean egindako azterlana nabarmentzen dugu, eta, jarraian, prestakuntzaguneen sorkuntza. Kontuak emateari eta sentsibilizazioari dagokienez nabarmentzen ditugu, halaber, parte-hartzeari eta kontuak emateari buruz egindako azterlana eta gaiarekin lotutako prestakuntza-ekintzak.

eLankidetzaren zeregina indartzeari dagokionez, ekintza humanitarioaren gaineko eztabaidagune ugarian parte hartu dugu, eta autonomia-erkidegoko eta estatuko eragileekin koordinatzeko ekintzak zehaztu ditugu.

Azkenik nabarmentzen dugu urtero bete dugula emandako funts guztien % 9 gatazka eta beste indarkeria-egoera batzuei erantzutera bideratzeko hartutako konpromisoa.



3.2.8 EZAGUTZA ETA IKASKUNTZA SORTZEA

Ezagutza eta ikaskuntza sortzea bultzatzea izan da, IV. Gida Planaren barnean egonik, 2018-2021 aldian ibilbide mugatu samarra izan duten apustuetako bat.

2018-2021 aldian aurreikusi bagenuen ere ezagutza kudeatzeko estrategia bat eta ebaluazio-plan bat definitzea, ez gara esparru-dokumentu horiek zehaztera iritsi. Nolanahi ere, bi lerroetan aurrerapenak egiteko aukera izan dugu. Ezagutzaren kudeaketan, ekimenen mapaketak egin ditugu jardun estrategikoko ardatzen arabera, ardatzen araberako ikaskuntza-lerro bat ezartzeko lehen urrats baten modura, eta horrez gain, datuak ustiatzeko oinarriak ezarri ditugu. Ebaluazioan, berriz, mapaketa bat egin dugu azken urteetan lagundutako ekimenen ebaluazioen gainean, eta hainbat ebaluazio propio bultzatu ditugu.


Ikerketa sustatzeari dagokionez, ikerketen mapaketa bat egin dugu proiektuen (PRO) 3. kapituluaren (K3) esparruan, eta eLankidetzatik zenbait ikerketa eta argitalpen bultzatu ditugu. Ikerketarako tresna propio baten egokitasunaren analisisan, ordea, ez dugu aurrerapenik egin.

3.2.9 GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

IV. Gida Planaren barnean ez da hartzen gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren lerro espezifiko bat, baina bai zuzenean lotutako ikuspegi bat: herritar kritikoak. Horregatik, ebaluazio-prozesuan gizarte-eraldaketarako hezkuntza sartu dugu aztertu beharreko elementu baten modura. Horretarako, ARAR 2017-2020 – eLankidetzaren eraldaketarako hezkuntzako ekintza-planaren lau lerroak hartu ditugu erreferentzia moduan.

Ekintzarako prestakuntzaren lerroan, nabarmentzekoa da ekimenen akonpainamendua eta bultzada, jardunbide egokien identifikazioa eta lau Heziketa Topaketa antolatu izana, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean. Ekintza eraldatzaileen lerroan, alor horretako ekimenak lagundu eta bultzatu ditugu, jardunbide egokiak identifikatu ditugu eta *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programaren ebaluazioa garatu dugu.

Erakunde hezitzaileari dagokionez, Hezkuntza Salarekin garatutako ekimenak eta artikulazioa nabarmentzen ditugu. Eusko Jaurlaritzako beste arlo batzuetan, ordea, artikulazioan aurrera egin dugun arren, hobetzeko eta baterako ekimenak zehazteko tarterik bada oraindik ere. Azkenik, ikaskuntza-kulturari dagokionez, nabarmentzekoa da ebaluazio propioak garatu ditugula eta lau jardunaldi gauzatu ditugula, (H)ABIAN 2030 estrategiaren indar-ideiak garatzen dituzten Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin eta Hegoa-Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuarekin batera.



3.2.10 LEHENTASUN TRANSBERTSALAK ETA GEOGRAFIKOAK

Jardun estrategikoko hainbat ardatzetan, aurreko ataletan hurbilketa labur bat egin dugu generoko, giza eskubideetako eta "tokikoa-globala" alorreko ikuspegi transbertsalerara. Jasangarritasun ekologikoko eta gaitasunak, parte-hartzea eta antolamendua indartzeko transbertsaleran zentratuko gara jarraian.

Jasangarritasun ekologikoko transbertsaleran, ez ditugu bultzatu ikuspegiaren gainean aurreikusitako ebaluazioak eta prestakuntzaguneak, eta ingurumen-alorreko ekintzak gutxi samar zehaztu dira. Bestetik, gaitasunak, parte-hartzea eta antolamendua indartzearen gaineko transbertsala, proiektuen (PRO) eta ekintza humanitarioaren (EHE eta PRE) 3. kapituluko (K3) baremo eta formularioetan berrikusi dugu soilik.

Lehentasun geografikoei dagokienez, Afrikari buruzko jardun estrategikoko ardatzean adierazitakoaz gainera, nabarmendu nahi dugu 2020an Kubaren eta Euskadiren arteko elkar ulertzerako memorandum bat sinatu zela, eta bertan, Kuban akonpainatzen eta bultzatzen dugun lankidetzarako lehentasunak zehaztu genituela. Horrez gain, urtean behin, lankidetzaren euskal eragileekiko topaketa geografikoak garatu ditugu, herrialdeen eta eremu geografikoen arabera.

3.2.11 KOMUNIKAZIOA

Komunikazioaren aldeko apustuak aurrerapen esanguratsu bat izan du 2018-2021 aldi honetan, gure 2019-2022 I. Komunikazio Plana eta eLankidetzaren barneko komunikazio-arkitektura definitu ditugulako. Gainera, webguneari eta sare sozialei dagokienez, eLankidetzaren webgunea berdiseinatzeke prozesua hasi dugu, eta Twitterren eta YouTubeen gure presentzia hobetu dugu, alor horretan oraindik hobetzeko tarterik badago ere.

Gardentasunaren eremuan, eLankidetzaren urteko memorien edukiak birdefinitu ditugu, eta formatu bisualago bat eman diegu. Eta 2018an, Euskadiko lankidetzaren erakunde publikoekin elkarlanean, euskal lankidetzaren publikoaren Ataria atera genuen.

Kanpainen garapenean, ordea, aurrerapenak mugatuagoak izan dira: aldiari aurreikusitako bi komunikazio-kanpainetatik bat baino ez da zehaztu, COVID-19aren esparruan egindakoa, hain zuzen.

3.2.12 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarraipen- eta ebaluazio-atal honetan, ebaluazio-prozesu hori baldintzatu duen ekintza bat dugu egiteke: IV. Gida Planaren oinarri-lerroa eta adierazle-matrizea egitea, plana onartu ondoko lehen urtean egitea aurreikusita genuena.

Urteko hainbat plan eta memoria egin eta sozializatu ditugu, ordea. Eta, horrez gain, IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazio-prozesua garatu dugu.

3.2.13 ARAU-BERRIKUSPENA

Atal honetan aintzat hartutako ekintzen aurrerapenetan aldeak nabari dira. Garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea berrikusteko prozesuak planifikatutakoaz haratago egin du aurrera, baina dekretuak eguneratzeko blokearen aurrerapen-maila txikiagoa izan da aurreikusitakoa baino.

Legeari dagokionez, nabarmentzekoa da hare potentzialitate eta mugei buruzko analisi bat egin genuela, eta hainbat gunetan eztabaidatu eta sozializatu zela. Horren ostean, 2021ean, eLankidetzatik kontsultarako eta parte hartzeko prozesu bat gidatu genuen 1/2007 Legea berrikusi eta eguneratzeko, eta lege berriaren lehen zirriborro-dokumentu bat sortu zen horren ondorioz.

Dekretuak eguneratzeari dagokionez, 2018-2021 aldiari, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketaren (GBA), ekintza humanitarioaren (EHE eta PRE) eta *Ignacio Ellacuría* sariaren (SAR) tresnen dekretu berriak argitaratu genituen. Gainera, aurrera egin dugu programen (PGM) eta, neurri txikiagoan, Nazio Batuetako beken (NBE) dekretuak berrikusteko prozesuetan. Eta, aurreikusita bazegoen ere, ez dugu hasi proiektuen (PRO) eta kooperante profesionalen (KOP) tresnen berrikuspena.

3.2.14 KUDEAKETA

Kudeaketari buruzko bloke honetan, aurrerapen esanguratsuak izan dira, esaterako, deialdien tramitazio elektronikoa sendotu da, eLankidetzaren plantilla zabaldu da eta gure bulegoak aldatu dira, gure jarduerak garatzeko aukera gehiago eskaintzen dituen egoitza berri batera.

Administrazio-berrikuntzari dagokionez, aldiz, 2018-2021 aldi honetan ez dugu behar adina aurreratu zenbait alderditan, besteak beste, espedienteak kudeatzeko gure sistemaren funtzionalitateak hobetzeari dagokionez.

3.3 NORAINOKOA

IV. Gida Planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrizearen hirugarren eta azken bloke hau, lankidetzaren politika betearazpenaren zuzeneko eraginetan zentratzen da. Norainokoaren neurketan aurrera egiteko apustu horretan aurrera egitea da 2014-2017 III. Gida Planaren ebaluaziotik sortu ziren erronketako bat. Ebaluazio-prozesu horretatik ondorioztatu zen, besteak beste, III. Gida Planaren matrizeak informazio asko zekarrela eLankidetzaren

"funtzionamendu-mekanismoaren gainean", baina ez xede-biztanleriarenganako inpaktuen eta sortu nahi ziren aldaketen gainean.

Gomendio hori gogoan, IV. Gida Planaren norainokoaren gaineko matrizea garatu genuen, politikaren helburuak neurtzeko bidean aurrera egiteko. Planean hiru helburu ezarri genituen:

1. helburua Pertsona eta kolektibo konkretu batzuek sustatutako gaitasunak – batez ere sistematikoki baztertutakoek sustatutakoak– indartzea eta estrategiak akonpainatzea, giza garapen jasangarriaren eta giza eskubideak erabat baliatzearen bidean aurrera egiteko.
2. helburua Lankidetzaren politikaren oinarri soziala zabaltzea, eta Euskadiko pertsona, erakunde eta instituzioen elkartasuna eta inplikazioa indartzea.
3. helburua Gure jardunbide eta ikuspegiak berrikuntzatik eta ikaskuntzatik eraldatzea, garapen-arazoei modu egokituagoan, integralagoan, estrategikoagoan eta koordinatuagoan erantzuteko.

Adierazle multzo zehatz bat, oinarri-lerro bat eta jarraipen-sistema sendo bat ez edukitzeak zeresana izan du norainokoaren neurketa mugatua izatean. Nolanahi ere, nabarmendu nahi dugu bitarteko ebaluazio-ariketa hau oso ikaskuntza lagungarria izan dela jarraipen-matrizea probatzeko eta haren potentzialitate eta ahuleziak ezagutzeko. Hala, hurrengo ataletan partekatzen dugun norainokoarekin lotutako datuak eta gaiak abiapuntu baliagarriak dira, gure ustez, IV. Gida Planaren norainokoaren neurketa birpentsatzeko haren azken ebaluazioari begira, baita etorkizuneko V. Gida Planaren oinarri-lerroa eraikitzeko ere.

3.3.1 1. HELBURUA: DATU KUANTITATIBOAK

IV. Gida Planaren lehen helburuan norainokoa jasotzen da lankidetzaren politikaren xede diren pertsona eta komunitateei dagokienez. Hala, planaren aldian, norainokoa neurtzeko mekanismoak ezartzeko erronka hartu genuen, oro har eta planean konpromiso esplizitua duten jardun-sektore eta jardun-eremuetan: giza eskubideen pertsona defendatzaileen babesa eta akonpainamendua, emakumeak ahalduntzea, Afrika, gatatzak eta beste indarkeria-egoera batzuk, eta herritar kritikoak sortzea (ekintzak Euskadin).

Jarraian, zenbait datu aurkeztuko ditugu politikak xede-biztanleriarengan eta lagundutako erakundeetan izandako norainokoaren gainean. Datu horiek lortzeko lana korapilatsua izan da: jatorrizko datuen kalitatea eta horiek bildu, sustatu eta aztertzeko sistemak hobetzen jarraitu behar dugu. Behin betiko eta kontsolidatutako datuak ez badira ere, 1. helburuaren neurketa kuantitatiborako lehen hurbilketa bat direlakoan gaude.

OROKORRA

Lagundutako pertsona kopurua

2018-2021 aldian 2,5 milioi pertsona lagundu ditugu, Hegoko herrialdeetan zein Euskadin. Kopuru hori, ebaluazio-txosten honetan xede-biztanleriari buruz bildu ditugun guztiak bezalaxe, hurbilketa baten gisara hartu behar da, besteak beste, hura kalkulatzeko, 2018-2021 aldian lagundutako ekimen guztietako xede-biztanleria hartu dugulako kontuan, eta beraz, litekeena delako, zenbait kasutan, ekimen desberdinetako xede-biztanleria berdina izatea, hau da, behin baino gehiagotan zenbatzea.

Hurrengo tauletan, xede-biztanleriaren gaineko informazioa partekatuko dugu,¹⁴ sexuaren eta kokapenaren arabera bereizita.

14. taula. 2018-2021 aldian lagundutako xede-biztanleria, sexuaren arabera bereizita.

Euskadi	514.542
Gizonak	234.722
Emakumeak	279.217
Ez-binarioa	603
Hegoko herrialdeak	2.066.002
Gizonak	941.006
Emakumeak	1.111.852
Ez-binarioa	13.144
GUZTIRA	2.580.544

15. taula. 2018-2021 aldian lagundutako Hegoko xede-biztanleria, sexuaren eta eremu geografikoaren arabera bereizita.

	Afrika	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	Zehaztu gabea	Hego Amerika	GUZTIRA
	1.001.912	349.082	426.280	44.480	244.248	2.066.002
Gizonak	434.544	167.945	203.054	18.880	116.583	941.006
Emakumeak	567.368	181.137	210.196	25.520	127.631	1.111.852
Ez-binarioa	0	0	13.030	80	34	13.144

16. taula. 2018-2021 aldian lagundutako Hegoko xede-biztanleria, sexuaren eta proiektuak kokatzen diren eremu geografikoaren arabera bereizita¹⁵.

	Afrika	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	Euskadi	Nazioartekoa	Hego Amerika	GUZTIRA
	85.464	19.063	16.801	388.367	197	4.650	514.542
Gizonak	46.973	9.085	9.493	166.301	38	2.832	234.722
Emakumeak	38.489	9.978	7.308	221.465	159	1.818	279.217
Ez-binarioa	2	0	0	601	0	0	603

¹⁴ Sexuaren arabera bereizitako datuei dagokienez, azpimarratzekoa da 2021ean hasi garela, informazioa biltzerakoan, "pertsona-ez-binarioa" kategoria barne hartzen. Eta hori xede-biztanleriaren taula guztiei aplikatzekoa da.

¹⁵ Euskadiko zutabeetan, Euskadin garatutako ekimenetan lagundutako Euskadiko xede-biztanleria islatzen da. Eta eremu geografikoen gaineko beste zutabeetan, berriz, nagusiki beste eremu geografiko batzuetan garatzen diren ekimenetatik akonpainatzen den Euskadiko xede-biztanleria biltzen da. Esaterako, badira ekintza humanitarioko ekimenak, nagusiki Afrikan garatu arren, Euskadiko biztanleriarengan eragiten duten ekintzak biltzen dituztenak, eta xede-biztanleria hori da taula honetan islatzen dena.


Lagundutako erakundeen kopurua eta tipologia

2018-2021 aldian, 148 erakunde eskatzaile eta 281 tokiko erakunde bazkide lagundu ditugu. Erakunde kopurua zenbatzeko, eta horrela, lagundutako erakundeen mapaketa zabalago eta osoago bat lortzeko, partzuergoa(k) dau(z)katen ekimenetan kontuan hartu ditugu, bai partzuergoko buru diren erakundeak, bai partzuergoan bildutako gainerakoak.

Lagundutako erakundeen-erakunde eskatzaileen kopurua

Lagundutako 148 erakunde eskatzaile daude guztira, eta horietatik 120 Iparreko erakundeak dira, 25 Hegokoak eta 3 nazioartekoak. Hegoko eta nazioarteko erakundeek zuzeneko dirulaguntzak (ZUZ) eta dirulaguntza izendunak (IZE) jaso dituzte, edo *Ignacio Ellacuría* Sariaren (SAR) erakunde esleipendunak dira.


07. grafikoa. 2018-2021 aldian lagundutako erakunde eskatzaileak tipologiaren arabera.



Lagundutako erakunde kopurua – tokiko erakunde bazkideak

2018-2021 aldian, 281 tokiko erakunde bazkide lagundu ditugu guztira. Hurrengo grafiko eta tauletan, erakunde horiei buruzko analisi bat aurkezten da, tipologiaren, kokapen geografikoaren, lurralde-norainokoaren eta izaeraren arabera.


08. grafikoa. 2018-2021 aldian lagundutako tokiko erakunde bazkideak tipologiaren arabera.




17. taula. 2018-2021 aldian lagundutako tokiko erakunde bazkideak, eremu geografikoaren arabera.

AFRIKA	85
Elkartea / fundazioa	62
Erakunde aldeaniztuna	16
Administrazioa / erakunde publikoa	3
Elizaren erakundea / beste erlijio batzuk	2
Sindikatuak	1
Ikerketa-zentroa	1
ASIA	25
Elkartea / fundazioa	22
Erakunde aldeaniztuna	3
ERDIALDEKO AMERIKA, MEXIKO ETA KARIBE	92
Elkartea / fundazioa	81
Unibertsitatea	4
Administrazioa / erakunde publikoa	2
Ikerketa-zentroa	2
Sindikatuak	1
Erakunde aldeaniztuna	1
Elizaren erakundea / beste erlijio batzuk	1
NAZIOARTEKOAK	3
Erakunde aldeaniztuna	2
Elkartea / fundazioa	1
HEGO AMERIKA	76
Elkartea / fundazioa	69
Administrazioa / erakunde publikoa	3
Unibertsitatea	2
Sindikatuak	1
Ikerketa-zentroa	1
GUZTIRA	281


09. grafikoa. 2018-2021 aldian lagundutako tokiko erakunde bazkideak eremu geografikoaren arabera.



10. grafikoa: 2018-2021 aldian lagundutako tokiko erakunde bazkideak lurralde-norainokoaren arabera.



11. grafikoa. 2018-2021 aldiaren lagundutako tokiko erakunde bazkideak izaeraren arabera¹⁶.



BABESA

Lagundutako pertsona defendatzaileen kopurua

2018-2021 aldiaren, giza eskubideen 140.234 pertsona defendatzaile lagundu ditugu. Kopuru hori hurbilketa bat da; izan ere, hartara iristeko, gure ustez babesean zentratuta dauden edo gai horretan garrantzizko elementuak dauzkaten ekimenei lotutako Hegoko xede-biztanleria gutzia hartu dugu kontuan.

18. taula. 2018-2021 aldiaren lagundutako Hegoko pertsona defendatzaileak, sexuaren eta eremu geografikoaren arabera bereizita.

	Afrika	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	Zehaztu gabea	Hego Amerika	GUZTIRA
	862	105.099	4.182	30.091	140.234
Gizonak	770	53.477	586	14.934	69.767
Emakumeak	92	51.622	3.596	15.153	70.463
Ez-binarioa	0	0	0	4	4

¹⁶ Tokiko erakunde bazkide batek izaera bat baino gehiago izan ditzake. Eta litekeena da beste batek, ordea, tokiko bazkideak bereizteko aipatu ditugun izaeretakoa bat ere ez izatea. Grafikoa, izaera bakoitzari dagozkion erakunde kopurua ikus dezakegu, letra lodian, eta zenbaki horrek tokiko erakunde bazkideen guztizkoaren (281) aldean suposatzen duen ehunekoa ere bai.

Lagundutako giza eskubideak babesteko komunitate, erakunde edo sareen kopurua + Giza eskubideak babesteko sendotutako eta pertsona defendatzaileak laguntzeko baldintza hobetan dauden komunitate, erakunde edo sareen kopurua.

Babesteko komunitate, erakunde eta sareak zenbatzea ezinezko gertatu da. Alabaina, hurbilketa baten modura bildu dugunez, 2018-2021 aldian 31 erakunde lagundu ditugu babestekotzat jo ditugun ekimenen bitartez.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Beren ahalduntzean lagundutako emakumeen kopurua

2018-2021 aldian 328.497 emakume lagundu ditugu beren ahalduntze-prozesuan. Kopuru hori hurbilketatzat jotzen dugu, hura lortzeko, gure ustez emakumeen ahalduntzean zentratuta dauden ekimenetako xede-emakumeen guztizkoa hartu dugulako kontuan.

19. taula. 2018-2021 aldian beren ahalduntzean lagundutako emakumeak, eremu geografikoaren arabera bereizita.

Afrika	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	Euskadi	Zehaztu gabea	Hego Amerika	GUZTIRA
96.126	79.596	48.489	53.632	4.400	46.254	328.497

Indartutako emakume eta feministen erakunde, mugimendu edo sareen kopurua

11. *grafikoan* ikus daitekeenez, lagundutako tokiko bazkideetatik 61 emakume-erakundeak ziren, eta 56, berriz, erakunde feministak.

AFRIKA

Afrikan bultzatutako ekimenetan lagundutako pertsona kopurua

2018-2021 aldian, milioi bat pertsona baino gehiago lagundu ditugu Afrikan. Afrikan gauzatzen diren proiektuetako Hegoko biztanleria osoa erreferentziatzat hartuta lortu dugu hurbilketa hori.

20. taula. 2018-2021 aldian Afrikan bultzatutako ekimenetan lagundutako pertsonak, sexuaren arabera bereizita.

Afrika	GUZTIRA
	1.001.912
Gizonak	434.544
Emakumeak	567.368

Indartutako euskal eta afrikar erakunde, mugimendu edo sareen kopurua eta tipologia

2018-2021 aldian, Afrikako 85 erakunde lagundu ditugu tokiko bazkide gisa.

21. taula. Tokiko erakunde bazkideak Afrikan 2018-2021 aldian, tipologiaren arabera.

AFRIKA	85
Elkartea / fundazioa	62
Erakunde aldeaniztuna	16
Administrazioa / erakunde publikoa	3
Elizaren erakundea / beste erlijio batzuk	2
Sindikatura	1
Ikerketa-zentroa	1

Afrikako eta Euskadiko erakundeak indartzeari dagokionez, 2018-2021 aldian:

- (i) Senegalgo eta Kongoko Errepublika Demokratikoko GKEen koordinakundeei Afrikako erakundeen gaitasunak indartzeko emandako zuzeneko dirulaguntzen esparruan, 270 eta 120 pertsonak parte hartu dute prestakuntzaguneetan, hurrenez hurren.
- (ii) 2018an eta 2019an eLankidetzak Afrikan diharduten euskal erakundeentzat bultzatutako prestakuntza-tailerretan, berriz, 92 pertsonak hartu dute parte.

GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA-EGOERA BATZUK

Krisi-egoeran dauden lagundutako pertsonen kopurua

2018-2021 aldian, krisi-egoeran dauden 689.820 pertsona lagundu ditugu. Gatazken eta beste indarkeria-egoera batzuen testuinguruei lotutako ekintza humanitarioko proiektuetako Hegoko biztanleria osoa erreferentziazat hartuta lortu dugu hurbilketa hori.

22. taula. Krisi-egoeran egonik 2018-2021 aldian lagundu ditugun pertsonak, sexuaren eta eremu geografikoaren arabera bereizita.

	Afrika	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	Hego Amerika	GUZTIRA
	335.803	261.210	68.031	24.776	689.820
Gizonak	163.613	116.865	36.542	9.829	326.849
Emakumeak	172.190	144.345	31.489	14.947	362.971

Krisiak kaltetutako biztanleriak hobeto babesteko indartutako Euskadiko eta tokiko erakundeen kopurua

Krisiak kaltetutako biztanleriak hobeto babesteko indartutako erakundeei dagokienez, 2018-2021 aldian 59 erakunde lagundu ditugu tokiko bazkide gisa.

Erakundeen gaitasunak indartzeari dagokionez, eLankidetzak ekintza humanitarioari loturik bultzatutako prestakuntzaguneetan, 2018-2021 aldian Euskadikoak diren edo

Euskadin ordezkariak duten 19 erakundek hartu dute parte, baita 16 tokiko erakunde bazkidek ere.

HERRITAR KRITIKOAK

Euskadin lagundutako pertsona kopurua

2018-2021 aldirian, milioi-erdi bat pertsona baino gehiago lagundu ditugu Euskadin, Euskadin egikaritutako ekimenen bitartez, eta, beste lurralde batzuetan egikaritu badira ere, Euskadiko herritarrengan eragiteko edo sentsibilizatzeko ekintzak biltzen dituzten ekimenen bitartez. Informazio hori *16 taulan* dago jasota.

Euskadin lagundutako kolektiboen kopurua eta tipologia

Ez gara iritsi Euskadin lagundutako kolektiboak sistematikoki zenbatu eta bereiztera. Alabaina, 2017-2020 – eLankidetzaren gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren ekintza-planak azpimarratzen duenez, aldirian onartutako proiektuen lehentasunezko herritarren tipologia honako hau da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak (12-16 urte) eta unibertsitarioak (19-25 urte), irakasle ez-unibertsitarioak, herritarrak oro har (helduak) eta hirugarren sektorea.

3.3.2 1. HELBURUA: DATU KUALITATIBOAK

1. helburuaren norainokoaren neurketari dagokionez, aurreko atalean lagundutako erakundeei eta xede-biztanleriari buruz bildutako datu kuantitatiboez gainera, IV. Gida Planaren matrizeak datu kualitatiboak ateratzea planteatzen du, planean konpromiso esplizitua duten sektore eta jardun-eremuetan egindako aurrerapena erakusteko. Norainokoaren neurketa hori egingo genuke: (i) aldaketa-istorio eta aldaketa-esperientzien bitartez; eta (ii) sortutako ikaskuntza eta eraldaketan bitartez.

Horretarako, planak ezartzen du tresna espezifiko bat zehaztea, jarraipen-txosten eta azken txostenetatik, bisitaldietatik, ebaluazio edo sistematizazioetatik eta truke-saioetatik sortuta eta elikatuta. Norainokoa neurtzeko bidean aurrera egin badugu ere —adibidez, lan-lerro batzuetan jardunbide egokiak eta ikaskuntzak unean-unean ateraz, eta proiektuen (PRO) eta ekintza humanitarioaren (EHE eta PRE) 3. kapituluko (K3) jarraipeneko eta azkeneko txostenak eguneratuz sistematikoki informazio kualifikatua edukitzeko—¹⁷, erreminta, berez, ez dugu oraindik sortu.

Egiteke dago hori beraz, eta hori ezagutza eta ikaskuntza sortzeko ardatz estrategikoari lotzen zaio zuzenean, prozesu-matrizeari lotutako atalaren harira adierazi dugunez, 2018-2021 aldirako planteatutako sakontasun-mailaren azpitik aurreratu dena. IV. Gida Planaren luzapenari begira, lehentasunezko ekintzetako bat izango da lehenetsitako jardun-eremu edo sektore bakoitzeko ikaskuntza-lerro bat zehaztea, lankidetzapolitikaren norainokoaren gaineko informazio kualitatiboa emango diguna.

¹⁷ 1. helburuaren norainokoari buruzko informazio kualitatibo batzuk dauzkagu, baina puntualak dira, eta beraz, behar bezain adierazgarriak ez direnez erabaki dugu ebaluazio honetan ez biltzea.

3.3.3 2. ETA 3. HELBURUAK: IV. GIDA-PLANAREN IKUSPEGIAK

IV. Gida Planaren bigarren helburuak gure ingurunean elkartasunaren aldeko konpromisoa zabaltzea du jomugan, eta hirugarren helburua, berriz, gure jardueren hobekuntzan zentratzen da, garapenaren erronkei erantzun egoki bat emateko. Bi helburuek zuzeneko lotura dute planak planteatzen dituen ikuspegiekin: konexio tokikoa-globala, elkarriketa estrategikoa, erantzukidetasuna, ekimen propioa, koherentzia eta koordinazioa, herritar kritikoak, ikaskuntza, berrikuntza eta lankidetzaren deszentralizatua balioan jartzea.

Horregatik, IV. Gida Planaren norainokoaren matrizean horrela jasota ez badago ere, ebaluazioaren atal honetan 2. eta 3. helburuen norainokora hurbiltzeko ahalegin bat egin nahi dugu, helburu horiek ikuspegiekin lotuz. Horretarako, 2. eta 3. helburuetako hainbat adierazle eta ebaluazio-galdera hautatu ditugu, eta ikuspegi arabera antolatu ditugu jarraian¹⁸. **Galdera eta adierazle horietarako ematen dugun informazioak bi iturri nagusi dauzka: batetik, galde-sortetan eragileen ahotik bildutako erantzunak eta, bestetik, 2021eko proiektuen (PRO) deialdian onartutako ekimenak aztertze ariketa pilotu bat.**


2. eta 3. helburuen norainokorako hurbilketa hori mugatua da, ebaluazioaren beste alderdi batzuekin gertatu den bezala. Nolanahi ere, gure ustez hori abiapuntu eta intsumo bat izan daiteke, IV. Gida Planaren azken ebaluazioari begira heldu beharko dizkiogun ekintza guztietarako.

BALIOESPEN OROKORRA

2. eta 3. helburuen norainokoa neurtzeko hautatutako galdera eta adierazleei erantzuten hasi baino lehen, gizarte-eragileek eta eLankidetzak IV. Gida Planari emandako bultzada politikoaren gainean egin duten balioespen orokorraren berri emango dizuegu.

Hurrengo grafikoetan berresten denez, helburu eta ikuspegi emandako bultzada politikoa nahiko positiboki balioetsi da, eta adostasuna nabari da aurrerapen handiena izan duten bi ikuspegiak aipatzean: lankidetzaren deszentralizatua balioan jartzea eta ekimen propioa.


IV. Gida Planaren helburuak eta ikuspuntuak abiarazteko eLankidetzatik eman den bultzada politikoaren balioespena, 1etik 5era.



¹⁸ Ariketa hori egitean, norainoko-matrizearen eta prozesu-matrizearen galdera eta adierazle batzuk antzekoak direla egiaztatu dugu.

Balioetsi 1etik 5era IV. Gida Planak planteatzen dituen ikuspuntuen bultzadan zure ustez egin den aurrerabidea:

- a.- Tokikoa-globala konexioa
- b.- Elkarriketa estrategikoa.
- c.- Erantzunkidetasuna.
- d.- Ekimen propioa.
- e.- Koherentzia eta koordinazioa.
- f.- Herritar kritikoak.
- g.- Ikaskuntza.
- h.- Berrikuntza.
- i.- Lankidetzaren deszentralizatua balioan jartzea.



ERANTZUKIDETASUNA/ ELKARRIKETA ESTRATEGIKOA / EKIMEN PROPIOA / BERRIKUNTZA

Elkarren artean lotura argia duten lau ikuspegi horiek atal berean bateratu ditugu. Jarraian, ikuspegi horiekin lotutako zenbait galdera eta adierazle bildu ditugu,¹⁹ eta pixkanaka erantzuna emango diegu.

Ba al dute gizarte- eta hezkuntza-eragileek eta eragile akademiko, ekonomiko eta instituzionalek IV. Gida Planaren berri? Erreferentziazko dokumentu bat al da sailen, erakundeen, gizarte- eta hezkuntza-eragileen eta eragile akademiko eta ekonomikoen planifikazioan? Eragileen lana orientatzeko gidalerro argiak ezartzen ditu?


IV. Gida Planak, erantzukidetasun-ikuspegitik, lankidetzaren politikaren oinarri soziala zabaltzearen alde egiten du. Alabaina, hurrengo galderatik ondorioztatzen denez, eragileek IV. Gida Plana ezagutzen duten eta batzuetan beren lanean erreferentzia gisa darabilten arren, hura ez litzateke nahikoa izango eragileen lana orientatzeko gidalerro argiak zehazteko.

¹⁹ 3.3.3 atal honetan, norainoko-matritzetik hautatutako ebaluazio-galderak eta adierazleak urdinez nabarmendu ditugu.


Lankidetzaren politikaren oinarri soziala zabaltzea, eta Euskadiko pertsona, erakunde eta instituzioen elkertasuna eta inplikazioa indartzea da IV. Gida Planaren 2. helburuetako bat. Balioetsi 1etik 5era IV. Gida Planaren ezagutzarekin eta/edo erabilgarritasunarekin lotutako gaiak.

- a.-IV. Gida Plana ezagutzen duzun dokumentu bat da.
- b.- IV. Gida Plana erreferentziako dokumentu bat da zure planifikazioan eta/edo lanean.
- c.- Eragile guztien lana —gizarte-arlokoak, hezkuntza-arlokoak, akademikoak, ekonomikoak eta instituzionalak— orientatzen duten gidalerro argiak ezartzen ditu IV. Gida Planak.


Gizarte-eragileak




eLankidetzaren



Eusko Jaurlaritzaren



Euskadiko lankidetzaren erakunde publikoak



Garapenerako lankidetzaren politika betearazteko lanetan erantzukide diren —modu gehigarri zein osagarrian edo GGKEekin batera— gizarte- eta hezkuntza-eragileen eta eragile akademiko, ekonomiko eta instituzionalen kopurua, mota eta inplikazio-maila.

Eragile desberdinak antolatzeko guneak bultzatu al dira, diagnostikoak partekatu, ekintzak lehenetsi eta kolaborazio espezifikoak zehaztu ahal izateko? Eragile ez-tradizionalen txertatze-maila.

Eragile desberdinen artean antolatutako ekintza kopurua.

Ebaluazio honen prozesu-matrizeari buruzko atalean, eragileak modu gehigarrian, osagarrian edo GGKEekin batera sartu diren eta eragile eta gaitasun desberdinak bateratu dituzten ekimenak aipatu ditugu hemen. Aipatu ditugu, adibidez, eremu estrategikoen esperientzia, AUZO(LAN)KIDEAK eta Eusko Jaurlaritzako sailek koherentzia-klabeen parte hartzen duten ekimenak.


Horrez gain, puntu honetan gai horretara hurbildu gara galde-sortetako galdera baten bitartez, IV. Gida Plana betearazteko eragileek egiten duten ekarpenari loturik. Balioespen desberdinak izan dira galdetutako eragileen artean, baina bi puntutan adostasuna nabari

da neurri batean: gizarte-eragileek ekarpen handiena egin dutela uste da, eta kontrako muturrean, ekarpen txikiena egin dutenak eragile ekonomikoak direlako ustea gailendu da.

IV. Gida Planaren betearazpenaren lidergoa eLankidetzari badagokio ere, nolako ekarpena egin dute beste eragile batzuek planaren helburuak lortzeko bidean?

Balioetsi 1etik 5era IV. Gida Planaren helburuak abiarazteko eragileek izandako parte-hartzea.

- a.- Gizarte-eragileak.
- b.- Hezkuntza-eragileak.
- c.- Eragile akademikoak.
- d.- Eragile ekonomikoak.
- e.- Eusko Jaurlaritzako sailak.
- f.- Lankidetzako bestelako euskal erakunde publikoak.




Eragile eta gaitasun desberdinak modu integratuagoan eta estrategikoagoan antolatzea lortu da?

Gizarte-eragileek eta eLankidetzak eragile eta gaitasun desberdinak modu integratu eta estrategikoan antolatzeari dagokienez egiten dugun balioespina ez da oso positiboa, galdera honi emandako erantzunetan islatzen denez. Galdera honi lotutako komentarioetan azpimarratzen denez, ahaleginak egin diren arren eta IV. Gida Planak ildo horretan egiten duen apustua argia bada ere, oraindik bide luzea dago egiteko.

Garapen-arazoei modu egokituagoan, integralagoan, estrategikoagoan eta koordinatuagoan erantzuteko beharrezko prozedurak hobetzea da IV. Gida Planaren 3. helburua. Zentzu horretan, balioetsi 1etik 5era ondorengo gaiak.

- a.-Tokiko prozesuen eta dinamika globalen arteko artikulazioa hobetu da.
- b.- Iparra/Hegoa, lankidetzaren ekintza humanitarioa/hezkuntza dikotomien hausturan aurreratu da.
- c.- Eragileak eta haien gaitasunak desberdinak modu integratuago eta estrategikoago batean artikulatzea lortu da.




Azkenik, 2021ean proiektuen (PRO) deialdian egin genuen ariketa pilotu baten zati bat aipatzen dugu puntu honetan, besteak beste, onartutako ekimenetan Iparreko erakunde aliatuak identifikatzeko. Onartutako ekimenetan erakunde eskatzaileak izan gabe ere, ekimen horiek garatzeko edo egikaritzeko eginkizun garrantzitsua duten erakundeak, instituzioak edo kolektiboak dira Iparreko aliatuak guretzat²⁰.


Hurrengo grafikoetan, Iparreko aliatuak tipologiaren, gaiaren eta lurralde-norainokoaren arabera bereizi dira, eta eLankidetzatik eta horrenbestez lankidetzaren politikatik lagundutako ekimenekin lotzen diren askotariko erakundearen sorta zabala erakusten digute. Hau da, aurreko galderen kontsiderazioaren argitan eragile eta gaitasun desberdinak txertatzearen alde egiten jarraitu behar badugu ere, onartu beharra dago, halaber, eragileen aniztasuna nabari dela eta eragile horiekiko artikulazioak abian direla.

²⁰ Proiektuen (PRO) deialdiko hiru kapituluarekin egin zen ariketa hau. Esan beharra dago, nolahi ere, ekimenen izaera dela-eta, Iparreko aliatu gehienak 2. (K2) eta 3. (K3) kapituluetan kokatzen direla.

12. grafikoa. 2021eko proiektuen (PRO) deialdian onartutako ekimenetan parte hartzen duten Iparreko erakunde aliatuak, tipologiaren arabera.




13. grafikoa. 2021eko proiektuen (PRO) deialdian onartutako ekimenetan parte hartzen duten Iparreko erakunde aliatuak, gaiaren arabera²¹.



²¹ "Beste batzuk" gaien, garrantzizko presentziarik gabeko hainbat gai desberdin biltzen dira. Besteak beste, komunikazioa, lan-eskubideak, giza eskubideak eta osasuna.

14. grafikoa. 2021eko proiektuen (PRO) deialdian onartutako ekimenetan parte hartzen duten Iparreko erakunde aliatuak, lurralde-norainokoaren arabera²².



HERRITAR KRITIKOAK

Herritarren inplikazio solidarioaren bilakaera eta lankidetzako politika eta eragileak nola balioesten dituzten neurtzeko parametroa.

Oraingoz ez dugu daturik emango, herritarren inplikazio solidarioaren bilakaeraren eta lankidetzako politikaz eta eragileez egiten duten balioespenaren gainean. 2021ean definitutako (H)ABIAN estrategiaren oinarri-lerroak horri begirako adierazleak biltzen dituzenez, IV. Gida Planaren azken ebaluazioan espero dugu alderdi horien neurketa erakutsiko duten datuak eskura edukitzea.

KONEXIO TOKIKOA/GLOBALA

Iparra-Hegoa, lankidetzak-ekintza humanitarioa/hezkuntza dikotomia hausten laguntzen duten ekintzen kopurua. Horretarako baliagarri izan diren tresnak.

Iparra/Hegoa dikotomiaren haustura ikuspegi tokikoa-globalaren bultzadarekin lotzen da zuzenean. Ildo horretan, prozesu-matrizearen atalean adierazi dugunez, aurrerapenak ez du IV. Gida Planak planteatutako sakontasun-maila eduki. Nolanahi ere, ikuspegi horren gainean hausnartzen eta Iparra-Hegoa dikotomia hausteko bultzatzen jarraitu behar bada ere, 2018-2021 aldiaren aurrerapenak egin dira, zenbait lerrotan behintzat: (i) ikuspegia proiektuen (PRO) deialdiko 3. kapituluko (K3) formulario eta baremoetan txertatzea, (ii) ikuspegi tokikoa-globala ezartzea programen (PGM) tresna berriaren funtsezko elementu gisa; eta (iii) ekintza humanitarioko ekimenetan (EHE eta PRE) Iparrean eragiteko osagaia bultzatzea.

²² Udal-mailako erakunde guztiak Euskadikoak dira; probintzia-mailako erakundeetatik bost Euskadikoak dira, eta beste bat Zaragozakoak; autonomia-erkidegoaren malako erakundeen kasuan, berriz, denak Euskadikoak dira bi izan ezik, bata Galiziakoak eta bestea Kataluniakoak. Azkenik, estatu-mailako erakunde guztiak Espainiakoak dira.


Artikulazio handiagoa lortu da tokiko-prozesuen eta dinamika globalen artean? Zer tresnak lagundu dute horretan? Artikulazio-ekintzen egokitasuna IV. Gida Planaren aldean. Zer aldaketa sorrarazi ditu artikulazio horrek (ikaskuntzak, aldaketak politketan, agendak...)?

Aurrera egin da Iparra/Hegoa eta lankidetzak-ekintza humanitarioa/hezkuntza dikotomien hausturan? Zer ikasi da? Beste norainoko bat lortu da bestelako esku-hartzeen aldean? Horizontaltasun eta elkarrekikotasun handiagoko harremanak lortu dira?

Gizarte-eragileek eta eLankidetzak Iparra-Hegoa dikotomiaren hausturaren eta tokiko prozesuen eta dinamika globalen arteko artikulazioaren gainean egindako balioespenak ez dira oso positiboak. Eta eLankidetzak gai horien gainean daukan ikuspegia kritikoagoa da. Ildo horretan, galdera horren harira egindako komentarioetan, eLankidetzaren inkestek aditzera ematen dute, aurrerapenak egin badira ere, hausnarketa handiago bat egin eta barne-adostasun bat lortu beharra dagoela, ikuspegi globalaz zer ulertzen dugun eta tresnetara nola eramaten dugun ikusteko.

Garapen-arazoei modu egokituagoan, integralagoan, estrategikoagoan eta koordinatuagoan erantzuteko beharrezko prozedurak hobetzea da IV. Gida Planaren 3. helburua. Zentzu horretan, balioetsi 1etik 5era ondorengo gaiak.

- ➡ a.-Artikulazio handiagoa lortu da tokiko prozesuen eta dinamika globalen artean.
- ➡ b.- Iparra/Hegoa, lankidetzak humanitarioa-ekintza humanitarioa/hezkuntza dikotomiaren hausturan aurrera egin da.
- c.- Eragileak eta haien gaitasun desberdinak modu integratuago eta estrategikoago batean artikulatzea lortu da.




Maila erregional eta globalean bultzatutako artikulazio-ekintzen kopurua eta maila anitzeko prozesuak.

2018-2021 aldian, artikulazio erregional eta globalaren alde egiten duten ekimenak lagundu eta bultzatu ditugu, deialdien zein zuzeneko dirulaguntzen bitartez. Ildo horretan, honako hauen esparruan abian jarritako ekimenak nabarmentzen dira: La Vía Campesina, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina, Emakumeen Mundu Martxa edo IM-Defensoras - Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Mesoamerikako Ekimena. Gainera, prozesu matrizearen atalean komentatu denez, eLankidetzak, Euskal Fondoa-Euskal Lankideen Tokiko Erakundeen Elkartarekin batera, PLATFORMA sortu du, garapenerako lankidetzako hiri eta erregio aktiboen Europako sarea.


Horrez gain, 2021ean ariketa pilotu bat egin dugu proiektuen (PRO) deialdian, besteak beste, onartutako ekimenen esparruan zer saretan parte hartzen den identifikatzeko. Jarraian, identifikatutako sareen gaineko informazioa emango dizuegu, sareak lurralde-

norainokoaren, ikuspegi tokikoa-globalaren integrazioaren eta gaien arabera bereiziz. Honako grafiko hauetatik bi gauza azpimarratzen ditugu: batetik, sareen ehuneko esanguratsu bat estatuz gaindikoak direla (% 35,14); eta, bestetik, sareen ia erdiak (% 45,95) agenda komuna dutela.

15. grafikoa. 2021eko proiektuen (PRO) deialdian onartutako ekimenetan parte hartzen duten sareak, lurralde-norainokoaren arabera.




16. grafikoa. 2021eko proiektuen (PRO) deialdian onartutako ekimenetan parte hartzen duten sareak, ikuspegi tokikoa-globalaren integrazioaren arabera.²³



²³ Ikuspegi tokikoa-globalaren integrazioa honela graduatu dugu: (i) begirada tokiko-globalik gabe, (ii) begirada tokiko-globalarekin —nolabait errealitatek haratago doan begirada—, (iii) ikuspegi tokiko-globalarekin —konexio bat egiten da tokiko errealitateen eta errealitate globalen artean—; eta (iv), agenda komunarekin, toki-mailan ere zehazten diren erronka globalei aurre egiteko.

17. grafikoa. 2021eko proiektuen (PRO) deialdian onartutako ekimenetan parte hartzen duten sareak, gaien arabera.



KOHERENTZIA ETA KOORDINAZIOA


Koherentzia-, koordinazio- eta osagarritasun-ekintzen kopurua.

Prozesu-matrizean, garapenerako politiken koherentziaren atalean, koherentzia bertikaleko eta koherentzia horizontaleko ekintzen berri eman dugu. Horren osagarri, lankidetzaren eragileek gai horretan egindako aurrerapenez egiten ditugun balioespenak aurkeztuko ditugu jarraian.


Gizarte-eragileek eta Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzaren politiken koherentzia egindako aurrerapenez zein eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste sailen arteko artikulazioaz egiten dituzten balioespenak nahiko positiboak dira. Galdera horien harira egindako komentarioetan, eLankidetzak egindako ahalegina aitortzen dute, eta Hezkuntza eta Osasunean egindako aurrerapenak nabarmentzen dituzte bereziki.

eLankidetzaren ikuspegia zertxobait kritikoagoa da. Horren atzean egon daiteke, galdera horien harira egindako komentario batzuetatik ondoriozta daitekeenez, eLankidetzaren barnean uste dugula garapenerako politiken koherentziaren bultzada prozesu nekeza, motela eta korapilatsua izaten ari dela.

Eusko Jaurlaritzak aldi honetan garapenerako politiken koherentzian aurrera egin duela uste duzu?
Balioetsi 1etik 5era Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Politiken Koherentziaren arloan egindako aurrerabidea.



eLankidetzak, aldi honetan, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuekin izan beharreko artikulazioan aurrera egin duela uste duzu?
Balioetsi 1etik 5era eLankidetzak Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuekiko artikulazioan egindako aurrerabidea.



Baterako erakundearteko ekintzen kopurua

Erakundearteko artikulazio handiagorik lortu da? Erakundearteko koordinazioan heldutako edukiak, hartutako erabakiak, partekatutako lidergoen hartze-maila.

Prozesu-matrizean, garapenerako politiken koherentziaren atalean, baterako erakundearteko ekintzen berri eman dugu. Horren osagarri, Euskadiko lankidetzak erakunde publikoek gai horren gainean egindako balioespenak aurkezten ditugu jarraian.

Hurrengo bi galderen erantzunetan islatzen denez, balioespena oso positiboa da. Eta haien ustez, koordinazio horren mugarri nagusiak dira, besteak beste, AKUAL-Erdialdeko Amerika-Euskadi uraren eta saneamenduaren arloko lankidetzako erakundearteko programa, (H)ABIAN 2030, euskal lankidetzak publikoaren ataria eta 1/2007 Legearen berrikuspenaren inguruan sortutako eztabaida eta lanerako guneak.


Aldi honetan Euskadiko lankidetzaren arteko artikulazioan eta koordinazioan aurrera egin dela uste duzu?

Pertsonen % 100ek uste dute Euskadin aurrera egin dela erakundearteko artikulazioan eta koordinazioan.

Balioetsi ezazu, 1etik 5era, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde Arteko Batzordearen koordinazio eta artikulazio instituzionala, zure gogobetetzearen arabera.

- a.- Heldutako edukiak.
- b.- Hartutako erabakiak.
- c.- Denborak.
- d.- Lidergo partekatua.

Euskadiko lankidetzaren erakunde publikoak



Azkenik, bloke hau ixteko, hanbat eragilek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren gainean egindako balioespenak sartu ditugu.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua dinamizatu eta ikuspuntu estrategikoagoa eman zaiola uste duzu (eztabaidagunea, proposamena, eraikuntza kolektiboa, eta abar)?

Galdera honi emandako erantzunetan islatzen denez, adostasun argi bat dago indarrean, eta, horren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari ikuspegi estrategikoago bat eman zaio.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari ikuspuntu estrategikoagoa eman zaiola uste duzu (eztabaidagunea, proposamena, eraikuntza kolektiboa, eta abar)?

Gizarte-eragileen, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko lankidetzaren erakunde publikoen % 87k, % 71k eta % 60k erantzun dute, hurrenez hurren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari ikuspegi estrategikoago bat eman zaiola.

Eragile desberdinak txertatu dira? nola balioesten da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua heldutako edukiei, eragileen parte-hartze mailari, denborei, hartutako erabakiei dagokienez, etab.? Partekatutako lidergoen hartze-maila (gaitzerrendan proposatutako gaiak, gaien azalpenak, etab.)

Hainbat eragilek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluz egiten dituzten balioespenak, oro har, nahiko positiboak dira. Balioespen negatiboena jaso duten alderdiak, oso bereziki gizarte-eragileen aldetik, denborak, hartutako erabakiak eta partekatutako lidergoa izan dira.


Balioetsi ezazu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua, 1etik 5era, ondorengo puntuekin duzun gogobetetzearen arabera.

- a.- Heldutako edukiak.
- b.- Eragileen parte-hartze maila.
- c.- Eragile desberdinak txertatzea.
- d.- Denborak.
- e.- Hartutako erabakiak.
- f.- Partekatutako lidergoa.

Gizarte-eragileak²⁴

Eusko Jaurlaritza

Euskadiko lankidetzaren erakunde publikoak



LANKIDETZA DESZENTRALIZATUA BALIOAN JARTZEA

eLankidetzaren eta euskal lankidetzaren publikoaren lankidetzaren deszentralizatuaren esparruko eragile garrantzitsu gisa errekonozitzen da estatuan, Europan eta maila globalean? Zein dira esleitzen zaizkion bereizgarriak?


Adostasun argia nabari da kontsultatutako lau eragile taldeen artean, eLankidetzaren eta euskal lankidetzaren publikoaren estatu-mailako lankidetzaren garrantzitsu baten modura errekonozitu behar diren inguruan. Europako eta maila globaleko errekonozimenduari ez da gauza bera gertatu, ordea: Eusko Jaurlaritzak eta Estatuko lankidetzaren deszentralizatuaren pareko erakundeek soilik adierazi dute balioespen positibo bat horren inguruan.

eLankidetzaren eta euskal lankidetzaren publikoaren lankidetzaren deszentralizatuaren esparruko eragile / lankidetzaren garrantzitsu gisa errekonozitzen da estatuan, Europan eta maila globalean? 1etik —garrantzi txikiena— 5era —garrantzi handiena— bitarteko balioespena.


- a.- Estatu-mailako garrantzia.
- b.- Europa-mailako garrantzia.
- c.- Maila globaleko garrantzia.

²⁴ Gizarte-eragileen erantzun kopurua txikiagoa da beste galdera batzuen aldean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarekin lotutako gaiari, gune horretan parte hartu edo parte hartzen duten gizarte-eragileek erantzun dietelako bakarrik.


Gizarte-eragileak




eLankidetzak



Euskadiko erakunde publikoak



Estatuko lankidetzak deszentralizatuaren pareko erakundeak



IKASKUNTZA

Garatu al dira, jardun estrategikoko ardatz guztietan, prestakuntzako, esperientzia eta jakintzak elkartrukatzeko, ebaluatzeko, esperientziak sistematizatzeko, gaitasunak indartzeko ekintzak eta abar? Jardunbide hobek identifikatu dira sortutako ikaskuntza eta ezagutzetatik abiatuta?

Lehenetsitako jardun-eremu eta sektoreekin lotutako planaren jardun estrategikoko ardatz guztietan, prestakuntzako, esperientziak elkartrukatzeko eta lotutako xedeetarako ekintzak bildu dira. Alabaina, ebaluazio honen matrizeari dagokion zatian jasotzen denez, aurrerapenak desberdinak izan dira ardatzen arabera. Puntu honetan ez gara luzatuko ezagutza eta ikaskuntza sortzearekin lotutako gai horien gainean, 3.2.8 *Ezagutza eta ikaskuntza sortzea eta 3.3.2 1. helburua: datu kualitatiboak* puntuetan heldu zaizkielako oro har.

ELANKIDETZAREN BALIOESPENA

Behin IV. Gida Planak bultzatutako ikuspegietan egindako aurrerapenetara hurbildu ondoren, atal honi amaiera emateko erreferentzia bat sartu dugu eragileek eLankidetzarekiko duten gogobetetze-mailaren inguruan, alderdi hori 3. Helburuko norainoko-matrizearen barnean hartuta dagoelarik.


Eragileek eLankidetzarekiko duten gogobetetze-maila (ekimenen akonpainamendua, izapideak eta kudeaketa, komunikazioa, plana betearaztea, etab.).

Gizarte-eragileek eLankidetzaz egiten duten balioespena aldatu egiten da, gaiaren arabera. Kudeaketa da okerren balioesten dutena, eta prestakuntzak, aldiz, balioespena jasotzen du.

Balioetsi 1etik 5era eLankidetzaren ondorengo eremuetan.


- a.- Ekimenetarako akonpainamendua.
- b.- Izapideak eta kudeaketa
- c.- Komunikazioa.
- d.- eLankidetzak bideratutako prestakuntzako eta topaketako guneak.
- e.- Gardentasuna.

Gizarte-eragileak



Balioetsi 1etik 5era ondorengo bitartekoen bidez eLankidetzaren aldetik jasotzen duzun informazioaren kalitatea.

Gizarte-eragileak



4. 2018-2021 ALDIKO MUGARRI NAGUSIAK

Hurrengo taulan, 2018-2021 betearazpenaldian lortutako mugarrak islatzen dira. Sistematizazio-laburpen hau egiteko, lankidetzaren eragileekiko galde-sortetan partekatutako balioespenak hartu ditugu erreferentzia modura, baita Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarekiko tailerrean egindako ariketa ere.

- Lankidetzaren aurrekontuen egonkortasuna, krisi ekonomikoa gorabehera
- Lankidetzaren sektorean eragile berriak sartzea
- Eragileen arteko artikulazio estrategikoa sustatzea
- Lankidetzaren deszentralizatua balioan jartzea
- Ekintza berritzaile eta estrategikoak bultzatzea
- Lankidetzaren Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetan ardatz estrategiko gisa txertatzean aurrera egitea
- Garapenerako politikaren koherentziaren alorreko lana bultzatzea, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin artikulatuta
- Gizarte-eraldaketarako eta ekintza humanitariorako hezkuntza-estrategiak bultzatzea
- Lehentasun sektoriala: emakumeak ahalduntzea eta giza eskubideen pertsona defendatzaileak babestea
- Lehentasun geografikoa: Afrika eta gatazkak eta bestelako indarkeria-egoerak
- Zeharkako lehentasuna: giza eskubideak eta generoa
- Prozeduren digitalizazioa
- eLankidetzari atxikitako langile kopurua handitzea
- eLankidetzari atxikitako langileen konpromisoa eta kualifikazioa
- Komunikazio-estrategia bultzatzea
- Prestakuntzaguneak bultzatzea

2022-2024 LUZAPENERAKO 5 IKASKUNTZA ETA ERRONKA

IV. Gida Planaren 2018-2021 aldiko bitarteko ebaluaziotik ateratako ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan. Ondorio horiek —ikaskuntza- eta erronka-klabean— bideratu eta erraztu nahi dute luzapenean plana behar bezala inplementatzea eta IV. Gida Planaren azken ebaluazioaren garapena, etorkizunean IV. Gida Plana gauzatzeko lanak gidatzeaz gainera.

Ondorioak hiru ataletan multzokatu ditugu: (i) diseinua eta ebaluagarritasuna hobetzeko gomendioak; (ii) kudeaketa-elementuen gaineko ikaskuntzak, ezarritako helburuen norainokoa errazten edo oztopatzen dutenak; eta (iii) IV. Gida Planaren luzapenean aintzat hartu beharreko erronkak.

5.1 DISEINUA ETA EBALUAGARRITASUNA

IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazio-prozesua oso baliagarria izan da, batetik, planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrizeko ebaluazio-galderei eta adierazleei erantzutea zenbateraino den bideragarria ikusteko, eta, bestetik, adierazle eta galdera horiek politikaren norainokoa neurtzera zenbateraino hurbiltzen diren balioesteko.

Diseinu- eta ebaluagarritasun-alorrean hobetzeko gomendio nagusiak aurkezten dizkizuegu jarraian:

- **Adierazle multzo errealista bat zehaztea.** Ebaluazio-prozesu honen ikaskuntza nagusietako bat izan da adierazle multzo zabal bati erantzutea ze konplexua den egiaztatzea, batzuetan, gainera, zer eta zertarako neurtu nahi dugun argi ez dugularik. Horregatik, beharrezkoa da, IV. Gida Planaren azken ebaluazioari begira, baliabideei, prozesuari eta norainokoari dagokienez lankidetzaren politika neurtzen benetan lagunduko digun adierazle kopuru mugatu bat zehaztea.
- **Adierazle multzoaren datuen jarraipen- eta bilketa-sistema bat definitzea.** Adierazle multzoa mugatzea garrantzitsua da, baina ezinbestekoa da, halaber, datuen jarraipen eta bilketarako sistema bat ezartzea (baliabideak, kanalak eta arduradunak), eLankidetzaren eguneroko zereginetan integratuko dena datuak etengabe eta sistematikoki ateratzeko.
- **Lankidetzaren politikaren oinarri-lerro bat zehazten aurrera egitea.** Lankidetzaren politikaren oinarri-lerro bat eraikitzea prozesu konplexua da. Bitarteko ebaluazio horrek lagundu digu konplexutasun hori dimentsionatzen, eta, klabe positiboan, politikaren norainokoaren datu kuantitatibo eta kualitatiboetara hasierako hurbilketa bat egiteko lanean. Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, hasierako oinarri-lerro bat zehaztu behar da IV. Gida Planaren azken ebaluazioari begira, eta, epe luzerago batera, aurrera egin behar da hurrengo aldirako oinarri-lerroa ezartzeko bidean (V. Gida Plana).
- **Aldaketaren teoriaren metodologia ikertzea.** Lankidetzaren politikak bultzatu nahi duen aldaketaren azpian dauden logikak hobeto garatu behar dira. Horretarako, V. Gida Plana zehazteari begira, interesgarria litzateke aldaketaren teoria planifikazio- eta ebaluazio-erreminta modura ikertzea.

- **eLankidetzaren planifikazioak koherentziaz artikulatzea.** Planifikazio-dokumentu guztiak koherentziaz artikulatu behar dira. Ikuspegi argi bat eduki behar da haien osagarritasunaz, indarraldiez, eta, bidezko bada, batzuen eta besteen arteko hierarkiaz. Ildo horretan, V. Gida Planak berriz ere heldu behar die plana egiteko unean indarrean zeuden planifikazio guztiei, eta haren betearazpenaldian egin beharreko planifikazioak ere aurreikusi behar ditu, nola integratu eta erreferentziatu ezartzeko.
- **Planifikazioetan malgutasun-printzipioa aintzat hartzea** 2018-2021 aldian, COVID-19aren pandemiaren testuinguruan ikasi dugu krisiek malgutasuna behar dutela ustekabeei aurre egiteko, baina, horrez gain, aukera-leihoak ere irekitzen dituztela. Horregatik, beharrezkoa da planifikazioetan jasotzea lankidetzaren politika betearazteko lanari helduko zaiola oreka batetik abiatuta, sor daitezkeen krisi-egoerei erantzuten eta aukerak aprobeztatzen jakiteko eta planifikatutako ekintzak betetzeko beharrezkoa den malgutasunarekin. Politika betearazteko garaian malgutasun-printzipioa txertatzeko mailan sakontzeko, dimentsio hori IV. Gida Planaren azken ebaluazioan aztertzeke aukera izango da.
- **Hegoko ahotsak ebaluazio-prozesuei gaineratzea.** Bitarteko ebaluazio horretan, mekanismo batzuk ezarri dira lankidetzaren politikan esku hartzen duten hainbat eragileren ekarpenak biltzeko. Hala ere, akonpainatzen ditugun tokiko erakunde bazkideen ahotsak entzuteko modurik ez dugu izan. Horregatik, azken ebaluazioari begira egokituz jotzen da Hegoko ekarpen eta ikuspegiak gaineratzeko behar diren mekanismoak sortu eta inplementatzea.

5.2 KUDEAKETA: PALANKAK ETA OZTOPOAK

Bitarteko ebaluazio-prozesuan elementu erraztaileak (palankak) eta elementu mugatzaileak (oztopoak) detektatu ditugu, IV. Gida Planaren inplementazioa baldintzatu dutenak, klabe positiboan edo negatiboan, hurrenez hurren.

Identifikatutako palanka eta oztopoak dikotomikoak dira. Zenbait jardun-lerrotan elementu erraztaileak detektatu dira, baina beste lerrotan batzuetan ez agertzeak mugatu du horien aurrerabidea.

PALANKAK	OZTOPOAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Apustu politiko eta ekonomiko egonkorra 2. Lidergo, erantzukizun eta helburu argiak 3. Barne-mailan IV. Gida Planaz jabetzea 4. Talde motibatua eta esperientziaduna 5. Baliabideak xede zehatz bati espezifikoki esleitzea 6. Kudeaketa eta lehentasunen alorreko ikaskuntzak 7. eLankidetzaren erreferentziazko eragile modura aitortzea 8. Kanpoko beste eragile batzuekiko harremana eta artikulazioa 9. Lankidetzaren sektore kontsolidatua 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Malgutasuna bultzada politikoan eta lidergoan 2. Asmo handiegiko planifikazioa 3. Argitasunik eza erantzukizun, eginkizun eta zereginetan 4. Barne-artikulazio ahula 5. Pertsona kopuru eta denbora mugatuak 6. Prestakuntzarik, ezagutzarik eta baterako hausnarketarik eza 7. Zalantza kudeatzeko zailtasuna 8. Apustu estrategikoak sustatzeko tresnak mugatzea 9. Hobetzeko moduko barne- eta kudeaketa-prozedurak

Labur-labur, honako hauek dira kudeaketari lotutako hobekuntza-gomendio nagusiak:

- **Jardun estrategikoko ardatzetarako eta planifikazioaren funtsezko elementuetarako lidergo, erantzukizun eta talde argiak ezartzea.** Ongi definitutako pertsona liderrak eta proaktiboak —eta, hala badagokio, talde zabalago bat— eduki dituzten ardatzek aurrerapen-maila handiago bat izan dute. Erantzukizun, eginkizun eta zeregin argirik izan ez duten ardatzetan, ordea, ez da aurrerapen adierazgarririk nabari.
- **Ekintza estrategiko eta ekimen enblematikoen lidergo politikoa zehaztea.** AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen garapenak irakatsi digu, besteak beste, lidergoak argitu eta zehaztea funtsezkoa dela ekimen horiek martxan jarri eta sendotzeko. Helburu argiak eta lidergo eta bultzada politiko irmoa dituzten AUZO(LAN)KIDEAK ekimenetan, aurrerapena nabaria izan da. Lidergoa eLankidetzari esleitu ez zaionean edo helburuetan erabateko argitasuna izan ez denean, ordea, aurrerabidea motelagoa izan da, edo ez da aurreikusitakoaren arabera aurreratu.
- **Zalantza kudeatzen ikastea.** Eginbide berritzaileak bultzatzeak, askotariko eragile eta gaitasunak artikulatzeak edo agerikoak ez diren konexio eta harremanak sortzeak arrisku- eta zalantza-maila bat dakar berekin, eta horrek kezka edo ezinegona sorrarazten du batzuetan. Berrikuntzaren arrakasta edo porrota ziurgabetasuna kudeatzeko gaitasunari lotzen zaio zuzenean.
- **Modu estrategiko eta errealista batean planifikatzen ikastea, lehenetsunak ezarriz.** Bitarteko ebaluazio honek irakatsi digu, besteak beste, garrantzitsua dela planifikazioan errealistak izatea, jardun-lerro desberdinak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak, pertsonak eta denbora kontuan hartuz. Batzuetan zaila izaten da anbizioaren eta instalatutako gaitasunen arteko oreka bilatzea. Horregatik, funtsezkoa da modu errealistan planifikatzea eta lehenesten ikastea.
- **eLankidetzako taldearekin planifikatzea.** IV. Gida Plan honen lorpenetako bat da eLankidetzako taldeak, nagusiki elaborazio-prozesuan parte hartu zuenak, plan honekin guztiz bat egiten duela. Horregatik, izugarri garrantzitsua da parte hartzeko planifikazio-prozesuekin aurrera jarraitzea, eraikuntza kolektiboko guneak ahalbidetuz.
- **Lankidetz-eragileekin harreman berriak zaintzea, sendotzea eta sortzea.** IV. Gida Planaren apustu estrategikoetako bat da lana artikulatzea eta erantzukidetasuna sustatzea, politikaren oinarri soziala zabaltzeko. Ildo horretan, ezinbestekoa da eLankidetzak, erreferentziazko eragilea den heinean, lankidetz-politikan parte hartzen ari diren lankidetz-eragileekiko harremanak sendotzen jarraitzea, eta, horrez gain, harreman berriak sortzea. Ezbairik gabe, hori lagungarri izango da sektorea eta euskal lankidetz-eragileekin sendotzeko bidean.
- **Baliabide ekonomikoei eustea, apustu politikoa den heinean.** Elkartasunaren eta gizarte-eraldaketaren aldeko apustu politikoa eta estrategikoa gauzatzea bideragarria da, soilik, lankidetz-politkarako baliabide ekonomiko esanguratsu eta egonkorren hornidura bat bermatzen bada.
- **Lankidetz-politika apustu estrategikoak ahalbidetzen dituzten tresnez hornitzea.** 2018-2021 aldian zenbait tresna berrikusi dira, besteak beste, apustu estrategikoak zehazteko bide emateko; esaterako, programen hurrengo dekretuaren (PGM) ardatza ikuspegi tokikoa-globala da. Datozen urteetan

beharrezkoa da tresnen araudia berrikusi eta eguneratzeko zeregin horrekin jarraitzea, eta, bidekotzat jotzen bada, tresna berriak sortzea.

- **Barne-kudeaketako prozedurak hobetzea eta bizkortzea** Subentzionatutako ekimenen kudeaketari lotutako karga administratiboa da eLankidetzako taldeak eta gizarte-eragileek identifikatutako oztopo eta erronka nagusietako bat. Ildo horretan, aurrera egin behar da kudeaketa-prozedurak hobetzeko eta bizkortzeko bidean.
- **eLankidetzako taldeen artikulazio hobe bat sustatzea.** Beharrezkoa da eLankidetzako barne-talde guztiek modu artikulatuago batean lan egitea. Horrez gain, garrantzitsua da eLankidetzako taldeen eta pertsonen prestakuntzaren alde egitea, betetzen dituzten eginkizun eta zereginei dagokienez.

5.3 ETORKIZUNARI BEGIRADAK

IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioa garatu dugu 2022-2024 aldirako planaren luzapena zehaztearekin batera. Ebaluazio-prozesu osoan etorkizun hurbilari begira egon gara denbora gutxian, datozen urteetarako erronkak identifikatzeko helburuarekin.

Ebaluazioan zehar berresteko aukera izan dugu IV. Gida Planaren ikuspegi eta lehenetsunak egungo erronkei erantzuteko baliagarri izaten jarraitzen dutela. Berresteko aukera izan dugu, halaber, hainbat arrazoi direla-eta (besteak beste, aurreko atalean aipatutako oztopoak), 2018-2021 aldirako ezarritako lan-lerroak ez direla beren sakontasun osoan garatu, baina egokiak izaten jarraitzen dutela.

Jarraian, galde-sorten bitartez eta eLankidetzarekiko eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarekiko tailerretan kontsultatutako lankidetz-eragileek identifikatutako eta lehenetsitako erronka nagusien berri emango dugu, labur-labur.

ERRONKAK
% 0,7 erantzukidetasun handiagoa garapenerako politiken koherentzia handiagoa erakundearteko koordinazio handiagoa eta aliantza hobe gehiago gaitasun-truke gehiago parte-hartze eta eraikuntza kolektiboko gune gehiago malgutasun eta berrikuntza handiagoa ikaskuntza handiagoa kudeaketa-prozeduretan bizkortasun handiagoa lehenetsuneko ardatzetan sakontasun handiagoa: giza eskubideak, generoa, Afrika, gatazkak, gizarte-eraldaketarako hezkuntza, ezagutza, AUZO(LAN)KIDEAK ingurumen / klima gehiago ikuspegi tokikoa-globalaren zehaztasun handiagoa euskal lankidetzaren ikusgaitasun handiagoa euskal herritarren mobilizazio handiagoa

- **% 0,7rantz aurrera egiten jarraitzea.** Begirada % 0,7an jarrita, hornidura ekonomiko esanguratsu eta nahiko baten alde egin behar da, lankidetzaz-politika zabaltzeko.
- **Erantzukidetasun handiago bat sustatzea eta tradizionalak ez diren eragile berriak txertatzea.** Erronka globalei ikuspegi integral batetik heltzeko, askotariko gaitasunak mobilizatu behar dira. Ildo horretan, erantzukidetasun-klabeen, lankidetzaz-politikan ezinbestekoa da askotariko eragileak irmotasunez txertatzea: gizarte- eta hezkuntza-arlokoak, akademikoak, ekonomikoak eta instituzionalak.
- **Eusko Jaurlaritzako garapenerako politiken koherentzia zeharkako bihurtzea 2030 Agendaren esparruan.** Lankidetzaz-eragileek onartzen badituzte ere 2018-2021 aldian garapenerako politiken koherentziaren alorrean egindako aurrerapenak eta eLankidetzaz horretan izan duen zeregina, beharrezkoa da koordinazio, koherentzia eta osagarritasunerako ekintzak bultzatzen eta indartzen jarraitzea, Eusko Jaurlaritzaren barnean eta lankidetzaz-eragileekin hitz eginez.
- **Erakundearteko koordinazio handiagoa.** Garapenerako politiken koherentzia sustatzeak dimentsio bertikal bat dauka. Ildo horretan, 2018-2021 aldian erakundearteko koordinazioaren alorrean egindako aurrerapen handiak eta Euskadiko lankidetzaz-erakunde publikoen artean sortutako baterako landinamikak eta konfiantza oinarritzat hartuta, bidezkoa da administrazio publikoen arteko artikulazioa sustatzen jarraitzea, udalen, foru-aldundien eta autonomia-erkidegoen mailetan.
- **Lehendik dauden aliantzak mantentzea eta indartzea eta beste batzuk sustatzea.** Elkartasuna eta gizarte-eraldaketa bultzatzeko, eragileen arteko aliantza sendoak behar dira. Ildo horretan, beharrezkoa da lehendik dauden aliantzak mantendu eta indartzea eta beste batzuk sustatzea, konfiantzazko harremanak sortuz.
- **Gaitasun-truke handiagoa.** Erronka horiek lortzeko beharrezkoa da ezagutzen trukea eta mobilizazioa indartzea, baita politiken arteko elkarriketa ere, horizontaltasunerako, ikaskuntzako eta elkarrekiko onurako baldintzetan.
- **Ibilbide luzeagoko parte-hartzeko eta eraikuntza kolektiboko guneak sustatzea.** Partaidetutako oinarri-politika zabal batek parte hartzeko guneak sortzea eskatzen du, non hausnarketa eta eraikuntza kolektiboa etengabe sustatuko diren, nola politikaren diseinuan, hala politikaren betearazpen eta ebaluazioaren jarraipenean.
- **Tresnei malgutasun handiagoa ematea, jardun berritzaileetarako prestatzeko.** Egungo testuinguruaren erronkak sormen-jardun eraldatzaileak behar ditu. Gizarte-eragileak kexu dira, egungo tresnek ekimen berritzaile eta estrategikoak garatzeko behar adinako malgutasunik ez dutelako. Ildo horretan, tresnak egokitu behar dira, testuinguruaren premia eta aukerei estrategikoki erantzuteko malgutasuna eduki dezaten.
- **Ezagutzaren kudeaketa eta ikaskuntza bultzatzea.** Besteak beste, honako alderdi hauetan egin beharko dugu aurrera datozen urtetan: jardun estrategikoko ardatzei lotutako ikaskuntza-lerroak ezartzea, jardunbide egokiak ateratzeko; ebaluazioaren alde egitea; edo laguntzen ditugun prozesu eta ekimenei buruzko datuak ustiatzeko lanetan aurrera egitea. Ezagutzaren kudeaketa eta ikaskuntza

funtsezkoak dira norainoko handiagoko lankidetzaren estrategikoago baterantz aurrera egiteko.

- **Kudeaketa-prozedurak bizkortzea.** 2018-2021 aldian aurrerapenak egin dira dirulaguntzak kudeatzeko hobekuntzan, deialdien online tramitazioa eta digitalizazioa adibidez, baina oraindik bidea dago egiteko, dirulaguntzen kudeaketarekin lotutako administrazio-prozesuak gehiago erraztearren.
- **IV. Gida Planaren lehenetsitako ardatzei sakontasun handiagoa ematea.** Atal honen hasieran jaso denez, 2018-2021 aldirako ezarritako lan-lerroek egokiak izaten jarraitzen dute, baina ez dira beren sakontasun osoan garatu. Ildo horretan, espezifikoki, honako ardatz hauei sakontasun handiago bat eman beharra azpimarratzen dugu: giza eskubideak, generoa, Afrika, gatazkak, gizarteraldaketarako hezkuntza, ezagutza eta AUZO(LAN)KIDEAK ekimen enblematikoak.
- **Ingurumen-faktorea txertatzean eta klima-aldaketaren aurkako borrokan sakontzea.** Azken urteotan protagonismo handiago bat hartu badu ere, ingurumenaren eta klima-aldaketaren arloetako lanak ez dauka, euskal lankidetzan, aurrez aurre dugun krisi globalak eskatzen duen pisu espezifikoa. Horregatik, gure ustez premia da lan hori sustatu eta txertatzeko ekintza espezifikokoak garatzea, 2030 Agendaren eta Europar Batasunaren ildoekin bat etorritik.
- **Ikuspegi tokikoa-globala zehaztea.** Globalizazio- eta interdependentzia-testuinguruak eta erronka komunen existentziak beharrezko egiten du tokiko prozesuen eta dinamika globalen arteko elkarriketa. Tokikoaren eta globalaren artean konexioak eta artikulazioak ahalbidetzeko, IV. Gida Planak apustu irmoa egin du IV. Gida Planaren alde. Hala ere, ikuspegia gutxi samar zehaztu da aldi honetan. Horrenbestez, datozen urteetan bultzada handiago bat beharko da.
- **Euskal lankidetzaren ikusgaitasuna hobetzea.** eLankidetzan komunikazioari emandako bultzada positiboki balioesten bada ere, datozen urteetan jauzi kualitatibo bat eman behar dugu komunikazio-estrategian, eta publiko desberdinetara egokitutako komunikazio-ekintzak indartu behar ditugu euskal lankidetzaren gehiago ikusarazteko helburuarekin, euskal herritarrek lankidetzaren ekosistemaren, hura osatzen dugun eragileen, egiten dugun lanaren eta nahi ditugun eraldaketan berri izan dezaten.
- **Euskal herritarrak mobilizatzea.** Aurreko puntuaren ildo beretik, tokiko errealitateak globalekin uztartuz, beharrezkoa da espiritu kritikoa sustatzea eta euskal herritarrak mobilizatzea, lankidetzatik eta elkartasunetik bultzatzen ditugun balioen eta eraldaketan alde. Justizia globalak pertsona eta herrien konpromisoa eta ekintza eskatzen du.

Identifikatutako erronkek berresten dute IV. Gida Planaren identifikatutako ikuspegi, lehentasun, ardatz estrategiko eta ekimen enblematikoen balioa, eta hurrengo aldian horietan sakondu beharra.

6. ERANSKINAK

- 1. eranskina. 2018-2021 aldian emandako funtsak**
- 2. eranskina Prozesu-matrizea**